



EMAILE BARIK, ODOLIK EZ

Odol emaille kopurua behera egiten ari da Oñatin azken urteotan. Jubilatuz doazen emailleentzako erreleboa falta da. Emailleen elkarteak dei egiten die herritarrei odola ematera.



**Lemoizko zentralera gatazkari
buruzko erakusketa eta
dokumental bana ikusteko
aukera egongo da**

Ingurumen Jardunaldiak

Bi atal nagusi ditu Natur Eskolak aurten prestatu duen egitarauak: Hiri-biodibertsitatea, batetik, eta ingurumenarekin lotutako borroka, problematika eta erronkak, bestetik

Badatoz, urtero bezala, Natur Eskolak antolatzen dituen Ingurumen Jardunaldiak eta aurtengo egitarauan bi atal nagusi bereiz genitzake. Atal bat hiri-biodibertsitatearen ingurukoa da, herriko berdeguneetan, horma eta ganbara zaharretan, kale eta plazetan uste duguna baino bizidun gehiago bizi baitira. Gure herrikide dira txolarreak, enara eta sorbeltzak, txantxikuak, muxarrak, saguzarrak, hontzak eta armiarmak, animalia batzuk aipatzearren. Landareak ere ez dira gutxi, izan bertakoak edo exotikoak. Honi buruzko erakusketa otsailaren 17an inauguratuko da kultur etxean eta martxoaren 8ra arte egongo da zabalik. Gainera, otsailaren 21ean Jordi Gomezek gaiaren inguruko hitzaldia emango du.

Bigarren atalari dagokionez, ingurumen borroka, problematika eta erronkekin dago erlazionatuta. Erakusketaren atal bat, izan ere, Lemoizko zentral nuklearraren harira sortu zen gatazkaren ingurukoa izango da, eta otsailaren 18an ildo beretik doan 'Ez, eskerrik asko' dokumentala aurkeztuko dute egileek. Ikus-entzunezko horretan Gladys del Estal militante ekologistaren hilketa agertzen denez, otsailaren 19an mundu mailako ingurumenaren aldeko aktibisten gainera erreprezio eta erailketen inguruko hitzaldia emango du Martin Mantxok. Izan ere, Latinoamerika edo Afrikako herrialdeetan urtero dozenaka aktibista hiltzen dituzte enpresa handien eta Estatuaren zerbitzura lan egiten duten paramilitarrek. Otsailaren 20an 'O que arde'

dokumentala emango da Zine Klubean, Galiziako suteen inguruko lan zoragarria.

LEMOIZKO ZENTRALERA IRTEERA

Otsailaren 22an Bizkaiara egun-pasa joateko irteera antolatu da, Lemoizko zentralaren ondoan pasiera bat egin eta bazkalostean Jon Betanzos geologoaren eskutik kostaldeko fenomeno geologikoak ezagutuz beste ibilaldi batekin eguna borobiltzeko.

Hilaren 27an 'Capitan fantástico' pelikula emango dute Zine Klubean, gizarteari kritika egiten dion lan ederra. Martxoaren 3an Madriletik Carlos Taibo etorriko da, zientzia politikoetako irakasle eta intelektual anarkista klasiko bat. Zibilizazioen kolapsoa zertan datzan eta noiz datorkigun marrazten saiatuko da. Kolapsoaren aurrean garatu ahal diren hipotesiak ere azalduko ditu: trantsizio ekosoziala, gizarte neo-rural, deszentralizatu eta igoalarioa ekarriko duena, edo alternatiba ekofaxista, ekologiaren izenean agintean daudenek erregimen despotikoak sortuko dituen.

Martxoaren 4an Aitziber Sarobek ingurumenaren alorrean dauden mugimendu, praktika eta erronken inguruan jardungo du, atalari amaiera emanez. Eta noski, betiko lez, aurten ere zuhaitz ferixia, zuhaitz eguna eta Aloñako lagunekin zuhaitz landaketan parte hartzeko aukera izango dugu guztiok.

egitaraua

ERAKUSKETAK

► OTSAILAK 17 - MARTXOAK 8

Kultur etxean, egunero 18:00etatik 20:00etara:
'Gure herrikideak: hiri-biodibertsitatea' eta
'Lemoizko borroka anti-nuklearra'
Otsailaren 17an inaugurazioa (18:30etan)

HITZALDIAK

Kultur etxean, 19:00etan

► OTSAILAK 18, asteartea

'Ez, eskerrik asko! Gladysen leihoa' Dokumentala eta
solasaldia / Sabino Ormazabal, egilea.

► OTSAILAK 19, asteazkena

'Mundu mailako ingurumen aktibisten errepresioa eta
erailketak' / Martin Mantxo, Ekologistak Martxan.

► OTSAILAK 21, ostirala

'Biodiversidad urbana. Su manejo y conservación
en edificios' / Jordi Gómez, Arabako Natur Institutua,
Txepetxa eta Aranzadi elkarteetako kidea.

► MARTXOAK 3, asteartea

'COLAPSO: capitalismo terminal, transición ecosocial,
ecofascismo' / Carlos Taibo, Madrilgo unibertsitateko
irakaslea politika zientzian.

► MARTXOAK 4, asteazkena

'Bai, mesedez! Egungo Ingurumen Erronkak' / Aitziber
Sarobe, Arkamurka Natur Taldeko kidea, bilogoa eta irakaslea.

ZINE KLUBA

Kultur etxean, 20:00etan

► OTSAILAK 20, osteguna

'O que arde'
Zuzendaria: Oliver Laxe.

► OTSAILAK 27, osteguna

'Capitán fantástico'
Zuzendaria: Mat Ross.



IRTEERA

► OTSAILAK 22, larunbata

'Lemoizko zentral nuklearra eta inguruko geodibertsita-
tea' / Informazioa eta izen-ematea: natureskola@yahoo.es.

ZUHAITZ EGUNA

► MARTXOAK 1, igandea

Goizeko 10etan herriko plazan.

ZUHAITZ FERIXIA

► MARTXOAK 7, larunbata

Goizeko 9etatik aurrera, Foruen enparantzan.

ZUHAITZ EGUNA ALOÑAKO LAGUNEKIN

► MARTXOAK 8, igandea

Goizeko 10etan Unaimendin.



ENGLISH SUMMER CAMPS IN OÑATI

INGELESEKO UDALEKUAK OÑATIN

Adina: from 5 to 11 years old

Ordutegia: from 9:00 a.m to 13:00 p.m

Iraupena: 2-4 weeks

Data: June 29th - July 24th

INGELESA ekintza hauen bitartez: Irteerak, ordenagailu jokoak, Master Chef,
eskulan tailerrak (barruan eta kanpoan), jolasak eta kirolak.



www.mondragonlingua.com

mondragon **Lingua**

OÑATI

Motxon, 7. Tel.: 943716000

moinati@mondragonlingua.com



IRUÑA-VELEIA

altxorra ala iruzurra?

Asteon hasi da Iruña-Veleian 2006an agertu ziren grafito 'berezi' en inguruko epaiketa. Kristo ondorengo II-V mendeetako 400 bat pieza dira, euskararen historia eta kristautasunaren hedapenaren inguruko hainbat teoria auzitan jartzen dituztenak, besteak beste. Arabako Foru Aldundiak faltsutzat jo zituen, aditu talde baten iritzietan oinarrituz, baina uko egin dio grafitoen datazio frogazientifikoak egiteari, benetakotasunaren defendatzaileek eskatzen duten moduan.

Arabako Iruña Oka udalerrian, Gasteiztik 11 kilometrora dagoen aztarnategia da Iruña-Veleia. Kristo aurreko 1.000 urterako herrixka bat zegoen bertan, eta Erromatar Inperioaren garaiko hiri handi bat izan zen, V. mende ingurura arte.

Aspalditik egin izan dira aurkikuntzak bertan, baina 2005 eta 2006an Eliseo Gilek zuzentzen zuen Lurmen enpresak 'ezohiko' piezak aurkitu zituen: kristo ondorengo II-V mendeetako 400 bat grafito, gai ezberdinetakoak (eguneroko bizitza, erlijioa, pertsonaia mitologikoak...) eta hizkuntza ezberdinetan (latinez, grekeraz, euskaraz...). Besteak beste, Kristau aroko lehenetariko kalbarioaren irudia, edota euskaraz idatzitako esaldiak irakur daitezke bertan, Arabaren euskalduntze berantiarraren teoria auzitan jarriko luketenak.

Oihartzun mediatiko handia izan zuen aurkikuntzak eta benetako altxortzat hartua izan zen. Baina bi urte beranduago, 2008an, Arabako Foru Aldundiak faltsutzat jo zituen grafitoak, EHUKo hainbat irakasle idatzitako sei edo zazpi txosten aintzat hartuz, eta auzipetu egin zuen Eliseo Gil, Lurmeneko langile bat eta kolaboratzaile bat.

2009-2011 urteetan Lurmenek nazioarteko aditu ezberdinen 20 txosten aurkeztu zituen epaitegian, aurkikuntzak benetakoak izan daitezkeela eta arkeologoen lan-jarduna zuzena izan zela aldarrikatzen dutenak.

Iritzi kontrajarriak daudela ikusita, grafitoak benetakoak ala faltsuak diren argituko duten arkeometria frogazientifikoak egitea eskatu dute Lurmenek eta Iruña-Veleia Argitu plataformako kideek, baina Gasteizko Auzitegiak eta Arabako Foru Aldundiak ez dute aintzat hartu eskaria.

Ia hamabi urteren ondoren, otsailaren 3an hasi da epaiketa. Arabako Aldundiak 7,5 urteko kartzela zigorra eskatzen du Eliseo Gilentzat, 'ondarearen aurkako kalteengatik'.

» Juan Martin Elexpuru / IRUÑA-VELEIA ARGITU plataformako kidea

"Laborategietan argitu beharreko auzia da hau, ez epaitegian"

Iruña-Veleiako grafitoen benekotasunaren defendatzaile sutsuenetako bat da Juan Martin Elexpuru (Bergara, 1950), filologian doktore, idazle eta itzultzailea. *Qué está pasando con Iruña-Veleia?* liburua argitaratu zuen duela urtebete, eta 'Iruña-Veleia Argitu' plataforman bildutako ehunka lagunek bezala, arkeometria frogak egitea eskatzen du, grafitoak benetakoak diren ala ez argitu ahal izateko. Ez du uste epaitegia denik eztabaida zientifiko bat argitzeko lekua.

Zergatik dira 'bereziak' edo 'ezohikoak' Iruña-Veleian 2006an agertu ziren ostraka edo grafitoak?

Orain auzipetuta dagoen Eliseo Gilek 1994tik ziharduen lanean Iruña-Veleian, eta lehenago ere eginak zituen aurkikuntzak. Baina 2005 eta 2006an agertutako grafitoak 'bereziak' ziren, kopuruagatik (400 bat pieza) eta, batez ere, gai eta hizkuntza alde-tiko aberastasunagatik: gehienak latinez daude, baina euskaraz idatzitako 50 bat pieza ere badaude, eta baita alfabeto grekoaz idatzitako hitzak eta dozena bat hieroglifiko egiptoar ere.

Edukiei dagokienez, kultura klasikoko jainko, errege eta intelektuaren aipamenak; kristautasunari lotutakoak (gurutziltzatuen irudiak, batzuk buruz behera); euskarazkoen artean koloreak (*zuri, urdin, gory...*), senideak (*ata, ama, neba...*), izen arruntak (*ilar, lura, sua...*) eta esaldiak ere agertzen dira.

Grafito horiek erakutsiko lukete kristautasuna uste zena baino gizaldi bat lehenago heldu zela Euskal Herriara, eta hankaz

gora jarriko lukete Arabaren euskalduntze berantiarren teoria, besteak beste.

Hasieran ontzat eman ziren grafitoak, baina laster azaldu ziren susmo txarrak, eta bi urte beranduago Arabako Foru Aldundiak faltsutzat jo zituen 'Batzorde Zientifiko Aholkulari'-aren iritzian oinarrituz.

Batez ere euskarazko grafitoek eragin zuten mesfidantza. *Lura, sua* edo *polita* bezelako hitzetan -a artikulua agertzea ezinezkoa dela zioten antzinako euskararen adituak diren filologoek; Erdi Aroan sartu omen zen. Bestalde, alfabeto latinoan existitzen ez omen ziren Z eta K hizkiak agertzea ere susmagarria da aditu horien ustez. Gurutze baten gainean RIP inskripzioa agertzea (ez du hori jartzen, gure ustez) edota *Nefertiti* jainkosaren aipamena ere faltsutasunaren froga omen dira.

Argudio horiek ez omen dira nahikoa froga, zure ustez.

Arabako Aldundiak Eliseo Gilek aurkako kereila jarri ostean,

honek 20 bat txosten aurkeztu zituen epaitegian, aurkikuntzak benetakoak izan zitezkeela eta arkeologoek lan jarduna zuzena izan zela aldarrikatzen zutenak. Nazioarte mailan izena eta ospea duten adituek egindako txostenak dira, euro bat bera ere kobratu gabe egindakoak.

Auzia argitzeko, froga zientifikoak egitea eskatzen duzue. Zehazki, zer?





HIRU HAMARKADA BAINO GEHIAGO

EUSKAL SUKALDARITZA ONENA ESKAINTZEN

MENU AUKERA ZABALA, OSPAKIZUN BEREZIAK, EZKONTZAK ETA EDOZEIN MOTAKO BAZKARI EDO AFARIAK EGITEKO INGURUNE LILURAGARRIA.

SUKALDE ZERBITZUA ERABERRITU DUGU. EZ GELDITU PROBATU GABE!

T. 943 78 19 56 | www.etxeaundi.com

Etxe-Aundi
Udala - Jatorria

Datazio teknika modernoak erabiliz erraza da, gaur egun, grafitoak benetakoak diren ala ez argitzea. Beraz, arkeometrian adituak diren Europako laborategietan grafitoen lagin bat aztertzea eskatzen dugu, eta horrez gain, indusketa kontrolatuak egitea Iruña-Veleiako grafitoak agertutako lekuen inguruan.

Horixe da hasieratik eskatu duguna eta gaur egun eskatzen duguna; alegia, zientziaren bi-deari heltzea auzi honi irtenbide zuzena emateko.

Zergatik ez dira egiten frogak horiek?

Horixe berori jakin nahi genuke guk ere. Foru Aldundiak eta Jaur-laritzak izan beharko lukete lehen interesatuak, baina beraiek jakingo dute zergatik ez dituzten frogak egin nahi. Beraiena izango da erantzukizuna.

Auzi honen inguruan egon den eta dagoen isiltasuna salatu izan duzu, bai politikoen, bai komunikabideen, bai Euskaltzaindiarena...

Hamabi urte joan dira auzi hau hasi zenetik, eta urte hauetan guztietan ez dut editorial bat ikusi Euskal Herriko komunikabide nagusietan, ez kronikarik, ez tertuliarik...

Alderdi politikoei, batez ere abertzaleek, mantendu duten isiltasuna ere salagarria iruditzen zait. Arabako Foru Aldundiak Eliseo Gilen aurkako keireila jarri zuenean hirukoa (EAJ-EA-Aralar) zegoen agintean, eta EAKoa zen kultura diputatua, gerora Bildun egon dena. Ondoren, EAJk agindu du diputazioan, baina honek ere ez du atzera egin nahi izan. Konnotazio eta eragin poli-

Zer gertatzen ari da Iruña-Veleian?



Iruña-Veleiako auziari buruz gehiago jakin nahi duenari Juan Martín Elexpuren **'¿Qué está pasando con Iruña-Veleia?'** (Pamiela, 2018) liburua irakurtzea gomendatuko diogu. Egileak berak sarrerakoan aitortzen duenez, ez da pertsona neutrala auzi honetan, baina Iruña-Veleiako auzia lehertu zenetik gaur arte izan diren gorabeherak eta alde bateko nahiz bestekoek mahai gainean jarri izan dituzten argudioak eta arrazoiak modu erraz eta arinean ulertzeko aukera ematen du, gaia konplexua izan arren. Lehenago, **'Iruña-Veleiako euskarazko grafitoak'** (Txalaparta, 2009) liburua argitaratu zuen. Filologoa, idazlea eta itzultzailea da Elexpuru.

tikoak dituen auzia da hau. Guk ez dugu eskatzen alde batera edo bestera lerratzea, baina, gutxienez, auzia argitzearen aldeko ahotsak altxatuko balira!

Bestalde, Iruña-Veleiako grafitoek euskararen historian izango luketen garrantzia kontuan hartuz, uste dut Euskaltzaindiak ere beste jarrera bat izan beharko zukeela, euskararen jagole edo zaindari nagusia den neurrian.

Zu zeu, aldiz, buru-belarri sartu zara auzian, grafitoen benetakotasuna defendatuz.

Urtebete edo biko gauza izango zela uste genuen gerra honetan sartu ginenean eta, pentsa, ia hamalau urte igaro dira grafitoak aurkeztu zirenetik, hamaika Eliseo Gil eta Lurmeneko beste kide batzuk auzipetu zituztenetik. Ikertzeko hiru pertsona besterik egon ez arren, epaileak zortzi urte luze behar izan ditu instrukzio fasea amaitzeko, eta oraindik zientifikoki frogatu gabe dago grafito bakar bat bera ere faltsua dela, eta are gutxiago,



Iruña-Veleiako grafitoek hankaz gora jarriko lukete Arabaren euskalduntze berantiarren teoria



Datazio teknika modernoak erabiliz, oso erraza da, gaur egun, grafitoak benetakoak diren ala ez argitzea

auzipetuak direla egileak.

Gure ustez, gaia usteltzen uzteko borondate garbia egon da, baina gu ez gaude horretarako prest. Fondoko korrikalariak gara, eta ez dugu etsiko auzia argitu arte, egia edozein delarik ere; benetakoak badira, benetakoak, eta faltsuak badira, faltsuak. Baina ezin dugu gai hau argitu gabe utzi. Kultura eta hizkuntza alorreko altxor handia izan daitekeena, euskararen historiarekin eta beste jakintza-arlo batzuekin zerikusi zuzena leuka keena, zabortegian amaitzeko arriskua dago.

Ezin da ahaztu, gainera, bien bitartean akusatuek hamaika urteko 'aulki-zigorra' jasan behar izan dutela, eta kartzela-urte luzeak bereganatzeko arriskua dutela (7,5 urte Elisio Gilek, eta 3,5 Oscar Escribanok) eta ia 300.000 euroko isuna, 'ondarearen aurkako kalteengatik'.

Egia jakin nahi dugu, edozein delarik ere, bestela hurrengo belaunaldiari pasatuko genieke eta eztabaida. ■



ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezo Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21



SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserrniko agia,
egurrezko labea egina



Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

Gure beharra baduzu,
ondo-ondoan gaituzu.
Arrasaten.

Hain ondo zaindu nahi
zaitugunez, **Arratsaten** bertan
ere artatuko zaitu Zuatzu
klinikako espezialista-taldeak,
20 urtetik gorako esperientzia
duenak.

Ginekologia eta obstetrizia.
Jaio aurreko diagnostikoa.
Bularretako patologia.
Laguntza bidezko ugalketa.

Nafarroa Etorbidea, 4 (bajo)
20500 Mondragón
943 792 018



www.clinicazuatzu.com



**Otsaileko odol ateraldia
hilaren 21ean egingo da,
Enpresagintza fakultatean,
17:00etatik 19:00etara**

Odol-transfusioa **eskubide** bat bada, odola emateak denon **ardura** izan beharko luke

► Odol emaile kopurua behera egiten ari da azken urteotan. ► Jubilatuz doazen emaileentzako erreleboa falta da. ► Emaileen elkarteak dei egiten die gazteei odola ematera

Oñati plaza ona izan da beti odol ateraldiei dagokienez. Hala ere, azkenaldian emaile kopurua behera egiten ari da, poliki poliki, baina eten barik. Datuak nahikoa adierazgarriak dira: iaz, batzaz beste 52 lagunek eman zuten odola hilero. Bi hilabetetan 40ra ere ez zen iritsi emaile kopurua, eta orain dela gutxi arte ia 70ean zegoen batzaz bestekoa. Aurtengo lehen ateraldian, urtarri-lean, 51 lagun joan ziren odola ematera.

Gipuzkoa osoan gertatzen ari den joera omen da, gainera, eta, beraz, alarma argiak pizten hasiak dira Odol Transfusioen Euskadiko Zentroan.

Arrazoi bat baino gehiago daude beheranzko joera horren

atzean, baina errelebo falta da nagusietako bat. Urte askotan oso fidelak eta konstanteak izan diren emaileak jubilatuz doaz, eta ez dago erreleborik, edo ez behintzat nahikorik.

Horregatik, Oñatiko odol emaileen elkarteak dei egiten die herriarrei, bereziki gazteei, emaile egitera. "Ebakuntzak egiteko, protesiak jartzeko, kimioterapia tratamenduetarako, botikak prestatzeko... odolaren osagaiak (globulu gorriak, plaketak eta plasma) beharrezkoak dira, eta odolik ez badago, osasun sistemak ezin du behar bezala funtzionatu. Beraz, kontzientziatu beharra dago gizartea; ezin gara erlaxatu" adierazi dute elkarteko ordezkariak.

52
laz, batzaz
beste, hilean
52 lagunek
eman zuten
odola Oñatin,
eta orain dela
gutxira arte
ia 70 izaten
ziren

Gogoratu, osasuntsu dagoen 18 eta 65 urte arteko edozein gizon-emakume izan daitekeela emaile. Pertsona bakoitzak urtean 3 edo 4 aldiz eman dezake odola, gehienez, eta ateraldi bakoitza 45 bat minutuko kontua izaten da (mediku-erizainaren kontsultatik pasa eta odola ematea). "Hiru edo lau hilean behin ordubeteko lotura; ez dugu uste esfortzu handia eskatzen duenik" gogoratzen dute elkartetik. Gainera, odola eman ondorengo sentazioa oso pozgarria izaten omen da.

Hurrengo ateraldia **otsailaren 21ean** izango da eta, beraz, odola ematera animatzen diren herritarrek Enpresagintza fakultatera joan besterik ez dute. ■

ODOL EMAILE BERRIAK

Zorionez, badira odol emaile izatera animatzen diren gazteak. Horietako batzuekin hitz egin dugu.

ANE ANDUAGA LARREA

► 20 urte

Orain dela urte eta erdi egin nintzen odol emaile. Aita ere bada, eta lagun batzuk ere bai. Hasieran beldur pittin bat ematen zidan, baina behin probatzera joan nintzen eta oso gustura ateran nintzen. Ordutik geroztik hiruzpalau aldiz eman dut. Jendeari laguntzeko era samur bat da, eta guri ez zaigu baxterez kostatzen. Beraz, animatu egingo nuke jendea, ez izateko beldurrik.

AITOR GURIDI GRISALEÑA

► 26 urte

2016an hasi nintzen odola ematen. Ama betidanik izan da emailea, eta, behin, kuadrillako hiru lagunek pentsatu genuen batera joatea odola ematera, probatzearen, eta geroztik jarraitu dut. Gizonezkoak urtean lau aldiz eman dezakegu odola, eta saiatzen naiz hori betetzen. Nire esperientzia ona da; langileak oso jatorrak dira, eta boluntarioen lana ere eskertzen da. Garbi dago odola beharrezkoa dela; be-

raz, ondo egongo zen jende gaztea animatzea. Bihar edo etzi edozein egon gaitzke odol premian. Beraz, zergatik ez? Gaur zureta, eta bihar nireta.

JUNE UGARTE GURIDI

► 21 urte

18 urterekin eman nuen odola lehen aldiz, unibertsitate etorri zen autobusean, eta orduan pentsatu nuen izena ematea Oñatiko odol emaileen elkartearekin. Egia esan, ez naiz oso konstantea; lau edo bost hilean behin ematen dut odola. Orain arteko esperientzia oso ona izan da; ez da ezer kostatzen eta, gainera, odola eman ondoren gustura sentitzen zara, zeozker aporteratzen ari zarela ikusita. Beraz, animo jendeari, eta ez izateko beldurrik.

AMAIA LETAMENDI LIZAUZ

► 25 urte

Gurasoak betidanik izan dira odol emaile, eta 18 urte bete orduko apuntatu nintzen neurenean, kuadrillako lagun batzuekin batera. Beldur pittin batekin joan nintzen

aurrenekoan, baina, egia esan, oso jende jatorra egoten da, arreta oso ona da, eta orain arte behintzat oso gusturanga. Ekintza on bat iruditzen zait; jendeak odol beharra dauka, eta gure esku dago laguntzea, inolako kostu edo arazo barik. Egunen baten beharra eduki ezker, denoi gustatuko litzaiguke laguntza hori. Gainera, norberaren osasunerako ere ona omen da odola ematea, garbitu eta berritu egiten delako. Beraz, animatzen dut jendea, noski, odol emaile egitera.

JONATHAN ANDUAGA AYASTUI

► 26 urte

lazko uztailean egin nintzen odol emaile. Askotan entzun dut odol premia dagoela eta, azkenean, animatu egin nintzen. Esperientzia polita izan zen; langileak jatorrak dira eta, oro har, arreta oso ona da. Gainera, sentsazio polita da, zure odolarekin beste batzuei lagundu ahal izatea. Azken batean, edonor egon gaitzke odol premian. Beraz, animatu egiten dut jendea odola ematera, baina presio baxik. Bakoitzak ikusi behar du; barrutik irteten behar da. Hau laguntza mota bat da, baina badaude beste modu batzuk ere laguntzeko. ■



118 aldiz odola emanda jubilatuta da Luis Maiztegi

Ateraldi bakoitzean 0,450 ml. ematen direla kontuan hartuz, 50 litro pasa eman ditu Luis Maiztegi odol emaile egin zenetik. Odoloste batzuk egiteko lain, berak dioen moduan.

lazko abuztuaren eman zuen azken aldiz; hil horren 26an 70 urte bete behar zituen, eta Oñatin ateraldirik ez zegoenez, Donostiaraino joan zen odola ematera. Bere konpromisoaren erakusgarri. Beragatik balitz jarraituko zukeen odola ematen, baina 70 urtetan dago muga.

1978an hasi zen Luis odola ematen, 27 urterekin, aitak bultzatuta. Lehen urteetan irregularra izan omen zen, baina 1983tik aurrera oso konstantea izan da, eta ia ia obligazio bezala jarri izan dio bere buruari urtean lau aldiz odola ematea. Inoiz, hileren batean ahaztu bazaio, Arrasatera joan da ematera.

Aitzakiak alde batera utzi eta odola ematera animatu nahi du jendea Luisek. ■

Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es

Jaione San Miguel Ugarte
 **MAPFRE**
OÑATI



Begoña Ugarte,
Mondragon Team Academyko coach-a,
Shazia Maryam eta Oihane Aizpurua ikasleekin

Baltistanen ekintzailetasuna sustatzea helburu

► Baltistango gazteen artean ekintzailetasuna sustatzeko proiektua jarriko dute abian Shazia Maryamek eta Oihane Aizpuruak ► Baltistan Fundazioa eta Mondragon Team Academyren elkarlanetik sortutako ekimena da

Baltistan Fundazioak ia hogeitaz urte daramatza Pakistango iparraldean dagoen Baltistan herrialdeko **Hushe** bailarako biztanleen garapena eta bizi-kalitatea hobetzeko lanean.

Karakorum mendilerroaren bihotzean dago Baltistan, eta bertan daude munduko hamalau zortzimilako gailurretako lau: K2, *Broad Peak*, *Gasherbrum I* eta *Gasherbrum II*. Hain zuzen ere, azken mendi honetan zendu zen Felix Iñurriategi atxabaltarra 2000. urtean, eta hurrengo urtean eratu zuten fundazioa haren lagunek, Hushe ibarreko komunitateak bizi duen pobrezia egoeratik irten eta garapen iraunkorra bultzatzeko helburuarekin.

Orduraz geroztik hainbat proiektu gauzatu ditu Baltistan fundazioak hezkuntza, nekazaritza, osasuna, turismoa, generoa eta azpiegituren arloan, besteak beste, garapen endogenoa bilatuz beti ere, hau da, komunitateak berak sustatu eta kudeatutako garapen ereduaren alde eginez.

MTAekin ELKARLANEAN

Garapen endogenoaren ideian sakontzeko asmoz, Baltistan Fundazioa eta Mondragon Unibertsitateko *Mondragon Team Academy* (MTA) elkarlanerako aukerak aztertzen hasi ziren orain dela bi urte, eta hortik irten zen Bal-

« Baltistango gazteen artean berrikuntza eta sortzaile sare sendo bat sortzea da helburua, etorkizuneko proiektuen gidaritzan eramateko gai izango dena »

Shazia Maryam
GAZTE BALTIARRA

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

tistango gazteak Oñatira ekartzeko aukera, ekintzailatza arloko formazioa jaso eta, ondoren, ikasitakoa sorterrian aplikatzeko.

Programa horren baitan *Hushe* bailarako bi gazte etorri dira Oñatira: Basharat Alí (azaroan bueltatu zen Baltistanera) eta Shazia Maryam. Fundazioko eta MTAKi ordezkariak garbi zuten gazteetako bat emakumezkoa izan behar zela, emakumeen papera oso mugatua delako hango gizartean, eta nahi baino gehiago kosta bazen ere (lehenengo hautagaiari ezkontza-kontratua sinatu arazi zioten Oñatira etorri bezperan), bigarren saiakeran Shazia Maryam 27 urteko gazteak heldu zion Oñatira etortzeko erronkari. "Ez zen erabaki erraza izan. Enpresagintza ikasketak egin ostean, GKE/ONG batean lanean ari nintzen, eta nire soldata beharrezkoa zen etxean (7 anai-arreba gara eta beste denak ikasten ari dira), baina, ezin nuen halako aukera bat pasatzen utzi eta, zorionez, aitaren babes osoa izan dut Oñatira etortzeko" adierazi digu gazte baltiarrek.

EKINTZAILE SAREA SORTU

lazko martxoan iritsi zen Shazia Oñatira eta Ekintzailatza masterra egin du Enpresagintza fakultatean. MTAREN metodologian trebatzeaz gain, proiektu bat prestatu du Baltistanen abian jartzeko

«Jende zoragarria ezagutu dut Oñatin, alaba bat bezala hartu nauten familiak, eta oso eskertuta nago. Ez dut sekula ahaztuko»

Shazia Maryam
GAZTE BALTIARRA

sortzea, etorkizuneko proiektuen gidaritza eta lidergoa eramateko gai izango dena". Ikasketak amaitu ostean, funtzionario izatea da Baltistango gazte gehienek ametsa, eta hori ondo dago, baina negozio eta proiektu berriak sortuko dituen jendea ere behar da, eta horretan eragin nahi du Shaziak.

Shaziaren proiektuak Eusko Jaurlaritzaren finantziarioa lortu du, eta Oihane Aizpurua oñatiarraren laguntza izango du martxan jartzeko. Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntza (LEINN) graduko ikaslea da Oihane, eta ikasketa amaierako proiektu gisa ekingo dio Baltistango erronkari. Urtarrilaren 30ean abiatu ziren biak Pakistanera ilusio handiz.

Oñatin bizitako esperientzia bere bizitzako ederrena izan dela aitortu digu Shaziak. "Jende zoragarria ezagutu dut, alaba bezala hartu nauten familiak, eta oso eskertuta nago. Ez dut sekula ahaztuko". Berak ireki duen bidea Baltistango beste gazte askorentzat, bereziki neskontzat, lagungarri izatea nahi luke Shaziak. ■

Aloña Mendi K.E.-ko zuzendaritza berritzeko prozesua abian da



Anton Inza, presidentea, Resu Murua, diruzaina eta Angel Barrena idazkariak utziko dute klubeko zuzendaritza

Urtarrilaren 22an egin zen ez ohiko batzarrean erabaki zen Aloña Mendi kirol elkarteko zuzendaritza batzordea (presidentea, idazkaria eta diruzaina) berritzeko hauteskunde prozesua abian jartzea. Bertan onartu zen egutegiaren arabera, **otsailaren 8a** da hautagaitzak aurkezteko azken eguna. Aukera bat baino gehiago aurkezteen bada, **otsailaren 20an** egingo da bozketa bazkideen artean.

SOZIALTATE MUGATUA ERATZEA

Sozialtate mugatu bat eratzea izan zen batzarrean aho batez hartu zen beste erabaki inportante bat. Tabernaren eta LAE lizentziaren (kinielak, lotoa...) kudeaketa hartuko du bere gain elkarte honek, eta Aloña Mendi K. E.-a izango da bazkide bakarra.

Horrekin batera, Aloña Mendi kirol elkartea 'Onura Publikodun Kirol Entitate' izendatzea onartu zen. Modu horretan, klubeko sail ezberdinetako babesleek onura fiskalak lortu ahal izango dituzte eta, beraz, babesleak lortzeko aukerak handituko direla uste dute klubeko arduradunek.

Txokolatada, afari eta antzerki solidarioak

Parrokiako Misio Taldeak antolatuta, Ginea Conacry-ko proiektuaren aldeko txokolatada solidarioa egingo da **otsailaren 25ean** (inauterietako asteartea) Foruen enparantzan, arratsaldeko 18:00etatik aurrera.

Bestalde, **otsailaren 28an** afari solidarioa egingo da, hau ere Guineako proiektuaren alde, Bidaurretako fraideen etxean, 20:00etan. Herritar guztiak daude gonbidatuta.



Azkenik, **martxoaren 1ean** (Santa Ana, 19:00) Pake Le-kuko Ikusi-Makusi antzerki taldeak *Remendando males de amores* antzezlanaren taularatuko du. Sarreraren batutako dirua Misio taldearen Guineako proiektuaren alde izango da.

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

EUSKAL ERREPUBLIKAREN EGUNA

ospatuko da Oñatin ere otsailaren 15ean

► **EHUN** herri ekimenak sustatuta, 30 bat herritan aldarrikatuko da Euskal Errepublika ► Oñatin, burujabetza lantzen ari diren elkarte ezberdinen azoka egingo da Foruen plazan ► Bi hitzaldi ere antolatu dituzte



Euskal Errepublika helburu duen herri ekimena da **EHUN**; gure eguneroko arazoak konpondu ahal izateko (pentsioak, etxebizitzaren prezioa, lan prekarioak, indarkeria matxista, komertzio txikiaren itxiera...), estatu-tresnak izango dituen Euskal Errepublika beharrezkoa dela uste duen mugimendu herritarra.

Iazko azaroan aurkeztu zen jendaurrean EHUN ekimena, eta otsailaren 15erako antolatu du aurreneko ekitaldia: **Euskal Errepublikaren Eguna**. Euskal Herri zabaleko 30 bat herritan egingo dira euskal errepublika aldarrikatzeko ekitaldiak, tartean Oñatin.

Geurean, arlo ezberdinetan burujabetza urratzen ari diren elkarte ezberdinak ezagutzeko aukera egongo da: **Goienere** (energia berriztagarriak), **Izarkom** (telekomunikazioa), **Koop57** (finantza zerbitzu etiko eta solidarioak) edota **Ortuzabala** (kontsumo taldea) bezalako elkarteak gertutik ezagutzeko aukera egongo da.

Otsailaren 15eko ekitaldien eta gerora etorriko diren beste ekimenen bidez pedagogia independentista lantzea da EHUNen xedea. Euskal errepublikaren beharra sozializatzea; burujabetza aldarrikatzeetik praktikan jartzera pasa behar dugula ikustaraztea, eta euskal errepublikazaleen sare ahalik eta zabalena ehuntzea, behetik gora.

EGITARAUJA

► **OTSAILAK 5**, kultur etxean, 18:30

HITZALDIA: GOIENER Energia berriztagarrien sorkuntza eta erosketara bideratutako kooperatiba honek burujabetzara bidean egiten duen ekarpena ezagutuko dugu.

► **OTSAILAK 12**, kultur etxean, 18:30

HITZALDIA: IZARKOM Euskal Herrian telekomunikazio operadore kooperatibo eraldatzailea lantzen ari den elkartearen ezagutzeko aukera izango dugu.

► **OTSAILAK 15**, Foruen plazan, 11:00

AZOKA: Hainbat arlotan burujabetza lantzen ari diren elkarten azoka. Goienere, Izarkom, Koop57 eta Ortuzabala bezalako proiektuak ezagutzeko aukera egongo da.

**ARANBURU
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

Aran Hernandez

Zure ETXEA eguneratu gureeneko inbertsio bat erabiliz bere salmenta edota alokairua eratzeko

626 114 382

aranhernandez@aranhernandez.com



'Ur publikoaren fluorazioa. Berraztertu beharreko gaia'

HITZALDIA Euskadi da ur publikoa fluoratzen duen Europako herrialde bakarrenetakoa. Horren zergatiaz eta gure osasunean izan ditzakeen ondorioez hitz egingo du Steve Carr-ek otsailaren 28an



Urteak daramatza Steve Carr-ek ur publiko edangarriaren fluorazioaren gaia aztertzen, eta iazko abenduan txosten bat bidali zion Euskadiko Osasun sailburuari, bere ikuspuntua azalduz. Orain herritarrekin partekatu nahi ditu bere ikerketa lanean jasotako argudioak eta ondorioak, eta horretarako hitzaldia antolatu du *Okitaño* (San Martingo Baratze Parkea) elkartearekin batera. **Otsailaren 28an** izango da, **Euskaldun Berria gelan** (Bidebarrieta, 18), **18:00etan**.

Ur edangarriaren fluorazioaren inguruan argi hitz egiteko ordua dela uste du Carrek. "Jendeak jakin egin behar du zergatik fluoratzen den ur publikoa, eta ze ondorio dituen horrek pertsonen osasunean". Gaur egun ikerketa zientifiko asko daude, askoz ere informazio gehiago dago ura fluoratzea erabaki zenean baino; beraz, gaia berraztertu eta birpentsatu beharra dagoela uste du Carrek.

Edateko ura fluoratzeko erabakia Estatu Batuetan hartu zen aurreneko XX. mendearen erdi aldera, kariesa edo txantxarra prebenitzeko ona zelakoan, eta poliki poliki hedatuz joan zen politika hori herrialde anglosaxoiara (Erresuma Batua, Australia, Zelanda Berria...). "Kontua da, baina, fluorazioaren aldekoen atzean zeuden industria boteretsuek isilarazi egin zituztela fluorazioak eragin zitzaizkeen ondorio kaltegarriak" dio Carrek. "Ordutik hona, baina, ikerketa asko egin dira gai honen inguruan, eta gaur egun demostratuta dago uraren fluorazioak ez daukala inolako funtzio nutrizionalik, eta, aldiz, eragin kaltegarriak dituela giza gorputzean. Egiaztatuta dago haur txikiak


« **Prozedura arriskutsua da sare publikoko ura fluoratzea. Gaur egun nahikoa informazioa dago gai honen inguruan, kautela printzipioa aplikatzeko** »

eta emakume haurdunak direla giza talde kalteberenak, eta ikerketa asko daude ondorioztatzen dutenak fluorazioak adimen-koizientea murrizten duela eta arazo neurologikoak eragin ditzakeela, besteak beste".

30 URTEKO ISILTASUNA

Euskadiko Autonomia Erkidegoan (EAE) 1988an hasi ziren ur publiko edangarria fluoratzen, eta, gaur egun, neurri hori aplikatzen duen Europa mendebaldeko herrialde bakarra da, Erresuma Batua izan ezik. Beraz, Carrek uste du gai honen inguruan dagoen literatura zientifikoa aztertu eta ura fluoratzeko erabakia birpentsatu egin beharko luketela EAEko osasun arduradunek.

Ur publiko edangarriaren fluorazioa herritarren baimenik edo onespenik gabe egiten den medikazio politika bat da, eta ez dago inola ere justifikatuta Carren ustez. Alemania, Belgika, Frantzia edo Finlandia bezalako herrietan baztertu egin zituzten ura fluoratzeko politikak, eta gaur egun Europa mendebaldeko biztanleen %97k fluoratu gabeko ura edaten dute. Euskadin, aldiz, gaiaren inguruko debate serio eta sakon baten falta ikusten du Carrek. Bere ustez prozedura arriskutsua da sare publikoko ura fluoratzea, eta gaur egun nahikoa informazio dago gai honen inguruan, kautela printzipioa aplikatzeko eta, beraz, fluorazioa bertan behera uzteko. Hogeita hamabi urteko isilunearen ondoren herritarrak informatu eta gaia aztertzeko unea dela uste du Carrek. "Ez dadila ezjakintasunagatik izan". ■



Olakua auzoko irisgarritasuna hobetzen jarraituko du udalak

► **2-A / 2-B** eta **3-A / 3-B** zenbakien arteko urbanizazioa berritu eta oinezkoen ibilbideak irisgarritasun arauetara egokitzeko lanak egingo dira aurten.

► **Maiatzean** hasiko dira lanak eta **hiru hilabeteko** epean burutzea aurreikusten da. ► **184 mila** euroko aurrekontua du proiektuak.

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

Ezkerreko planoak erakusten duen moduan, Olakua auzoko 2 eta 3 zenbakidun etxe-blokeen inguruko urbanizazioa berrituko du udalak datozen hilabeteetan.

A2B Arquitectos enpresak idatzi du proiektua udalaren enkarguz, eta bertan ikusten den moduan, 2-A / 2-B eta 3-A / 3-B atarien inguruan dauden oinezkoen ibilbideak, zebra-bideak eta mugikortasun urria duten pertsonentzako aparkalekuak berrituko dituzte, irisgarritasun arauetara egokitzeko edo, araua guztiz bete ezin den kasuetan, gaur egungo egoera nabarmen hobetzeko.

PLATAFORMA BAKARRA

Irudian ikus daitekeen moduan, 2 eta 3 zenbakidun etxe-blokeen arteko espaloiak zabaltu egingo dira, batez ere 3-A eta 3-B atarien aldean, gaur egun igogailuaren kaxak eten egiten baitu espaloia, eta plataforma bakarra egokituko da kale osoan, galtzada eta espaloiak altura berean dituen.

Mantendu egingo dira bertan dauden lau aparkalekuak, berritu egingo dira alde bateko zein besteko eserlekuak, eta zintarria ipiniko da parterre edo berdegunearen bueltan, ikusmen urria duten pertsonen orientazioa errazteko.

Horrez gain, 2-A eta 2-B etxeen aldamenetako ibilbideak ere berritu egingo dira, zoladura berria jarritz eta bidea oztopatzen duten bide-seinaleak eta farolak lekualdatuz.

ZEBRA-BIDE BERRIAK

Planoak erakusten duen moduan, bi zebra-pasagune berri egokituko dira. Horietako bat 2-A etxe-blokearen aldamenean egingo da, eta lotu egingo ditu bertako espaloia eta Bidaurretatik Txiki Txoko haur eskolara doan oinezkoen bidea, modu seguru eta irisgarrian.

2-B atariko berdegunearen ondoan egokituko den zebra-bideak berriz, jolas parkera eta autobus geltokira



Espaloiak zabaltu eta plataforma bakarra egokituko da kale osoan, galtzada eta espaloiak altura berean dituen

doan oinezkoen bidearekiko konexioa bermatuko du, modu seguru eta irisgarrian.

Bi zebra-bide horiek altxatutako plataforma erakoak izango dira, hau da, espaloien maila berean egongo dira, eta zoladura berezia ipiniko da pasagunearen ertz bietan, orientazioa errazteko.

Bestalde, bi pasabide egokituko dira 2 eta 3 zenbakidun atarien arteko bidearen ertzetan, alde bietako espaloiei jarraipena emateko, eta oinezkoen ibilbideetako konexioa edo lotura hobetzeko. Plataforma hauek inprimatutako asfaltozkoak izango dira, espaloietako zoladuraren kolore bertsukoak.

Bestalde, mugikortasun urria duten pertsonentzako dagoen aparkalekua mantendu egingo da, espaloien altura berean egongo den asfaltozko plataforma bat egokituz.

EPEAK

Udala baldintza pleguak prestatzen ari da, martxoan lanak lizitaziora ateratzeko asmoz. Ordura bitartean, herritarrek eta, bereziki, Olakuako eremu horretako bizilagunek, aukera dute proiektu honen inguruan egoki ikusten dituzten ekarpenak egiteko, udaletxeko Hirigintza departamentuan.

Ustekaberik ez bada, maiatzarekin batera hasiko dira lanak, eta hiru hilabeteko epea aurreikusten da obra burutzeko. A2B Arquitectos enpresak idatzitako proiektuaren arabera, lanek 184.470,24 euroko (BEZ barne) aurrekontua dute.

Gogoratu, udalak iaz onartu zuela Olakua auzoko irisgarritasuna eta hiri-espazioak hobetzeko plan orokorra. A2B Arquitectos enpresak egindako proiektu hark 2,6 milioi euroko aurrekontua zuen, eta udalaren asmoa da zatika egiten joatea, diru baliabideen arabera. ■

**Catalana Occidente**

Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

- ✓ Heriotza
- ✓ Autoak
- ✓ Bizitza

- ✓ Istripuak
- ✓ Ontziak
- ✓ Osasuna

- ✓ Etxebizitza
- ✓ Aurrezkia
- ✓ Laborantzia

Helbidea: Moxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

**Almaraz**
Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz
"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".



Udaleko departamentu ezberdinetako ordezkari politiko eta teknikoak, eta Osakidetza nahiz Ertzaintzako ordezkariak, lankidetzaren protokoloaren sinadura ekitaldian

Urrats bat gehiago, indarkeria matxistari aurre egiteko

► **Udala, Osakidetza eta Ertzaintzaren** arteko koordinazio protokola sinatu dute, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen arreta hobetzeko

Bi urteko lan multidiziplinarraren emaitza da urtarilaren 13an izenpetu zen protokola. Udalak 2016an egin zuen emakumeen aurkako indarkeria matxistaren diagnostikoa eta hark agerian utzitako gabeziei edo hobetu beharreko erantzuna eman asmoz, indarkeria matxistaren prebentzioan, detekzioan, biktimen arretan eta esku-hartzean eragiteko jardute irizpideak landu eta adostea erabaki zuen.

Prozesu horrek hiru dokumentu eman ditu emaitza gisa: 'Erakundearen arteko koordinaziorako protokola'; 'Udaleko zerbitzu ezberdinetatik egiten den esku-hartzeak emakumeen ahalduztzean eragin positiboa izateko irizpideen bilduma'; eta 'Erantzun publiko-instituzionalerako protokola'.

Azken biak 2019ko otsailean onartu zituen udalbatzak, eta indarrean daude orduz geroztik. Hirugarren dokumentuak beste erakunde batzuen onarpena ere eskatzen zuen, eta horregatik atzeratu da pittin bat, baina, esan bezala, urtarilaren 13an izenpetu zuten Oñatiko udaleko, Osakidetza eta Ertzaintzako ordezkariak. "Dokumentu honen helburu nagusia da koordinazio mekanismoak fintzea, irizpide bateratuak ezartzea, eta herritarren inplikazio aktiboa bilatzeko bitartekoak jartzea" adierazi zuen Izaro Elorza alkateak. Beste modu batera esanda, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta ahalik eta azkarrena, egokiena, eraginkorrena eta goxoa ematea da. Elorza alkateak garbi utzi nahi izan zuen protokola sinatzea ez dela bere horretan helburu bat, bitarteko bat baizik. "Elkarlanerako finkatu dugun bidea urratzea da hemendik aurrerako erronka, eta hori bermatzeko koordinazio mekanismo egokiak eta etengabeko jarraipen eta ebaluazio sistemak ezarriko ditugu". ■



Udalaren webgunean daude ikusgai hiru protokoloak

II. Berdintasun Plana egingo du udalak

2012an egin zuen udalak Oñatiko I. Berdintasun Plana eta, dagoeneko, lehen plan horren ebaluazioa egin eta bigarren plana diseinatzeko unea dela erabaki du gobernu taldeak, udalaren Berdintasun politiken norabidea ezartzeko oinarriko tresna gisa. Orain, ebaluazioa egin eta plan berria idazten lagunduko dion enpresa kontratatze deialdia egin du udalak, 30.000 euroko aurrekontuarekin. Martxoaren 6ra arteko epea dago proposamenak aurkezteko.

Berdintasunaren eremuan diharduten elkarreentzako diru laguntza deialdia

Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren eremuan lan egiten duten elkarreentzako diru laguntza deialdia egitea onartu du udaleko Berdintasun sailak, 4.070 euroko aurrekontuarekin. Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera 30 egun balioduneko epea egongo da eskaerak aurkezteko.

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

EGUR-LAN
AROTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAIO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL / FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

Zubikoa Kiroldegiko Pilates eta Fit Bike gelak erabilera libererako irekiko dituzte

Zubikoa kiroldegiko kantxa urdinaren ondoan dauden Pilates eta Fit Bike gelak bazkideen erabilera liberarako irekiko dituzte, bertan ikastarorik ez dagoen orduetan. Pilates gela entrenamendu funtzionalerako materiala egongo da (baloiak, gomak, pesak...).

Otsailean zehar proba egingo da, eta erabilpena egokia bada, jarraipena emango zaiola adierazi dute udal kirol zerbitzuetako arduradunek. Ondoko tauletan ikus daiteke zein egun eta ordutan erabili ahal izango diren Pilates eta Fit Bike gelak.

ELTZIARAKO TXARTELAK

Gogoratu, otsailaren 3az geroztik txartela behar dela Eltzia kirol instalazioetara sartu ahal izateko, bai gimnasioko erabiltzaileek eta baita fitness ekintza gidatuetaok ere. Oraindik txartela eskuratu ez dutenek Zubikoa kiroldegiko harreraren eskatu behar dute.

PILATES GELA Sala de Pilates							
	A	A	A	O	O	L	I
09:00							
09:30							
10:00							
10:30							
11:00							
11:30							
12:00							
12:30							
13:00							
13:30							
14:00							
14:30							
15:00							
15:30							
16:00							
16:30							
17:00							
17:30							
18:00							
18:30							
19:00							
19:30							
20:00							
20:30							
21:00							
21:30							

FIT BIKE GELA Sala de Fit Bike							
	A	A	A	O	O	L	I
09:00							
09:30							
10:00							
10:30							
11:00							
11:30							
12:00							
12:30							
13:00							
13:30							
14:00							
14:30							
15:00							
15:30							
16:00							
16:30							
17:00							
17:30							
18:00							
18:30							
19:00							
19:30							
20:00							
20:30							
21:00							
21:30							

Berdez eta urdinez dago adierazita asteko zein egun eta ordutan egongo diren irekita erabilera libererako kiroldegiko Pilates eta Fit Bike gelak. **OHARRA:** otsailaren 5, 12 eta 19an Fit Bike gela okupatuta egongo da 13:00etatik 14:00etara



Munazategiko komuna prest, Olabarrietakoa bidean



Goiko argazkian ikusten den moduan, bere lekuan eta martxan dago jada Munazategi inguruan udalak ipini duen komuna. 2018ko Partaidetzazko Aurrekontu prozesuan herritarren boto gehien

(%97,8) jaso zuen inbertsio proposamena izan zen komun bana jartzea Torreauso-Madalena eta Olabarrieta-Asentzio arteko pasealekuan. Munazategikoa ipinita, Aiastui pareko errepide azpiko pasabidearen ondoan jarriko da beste komun bat, argazkian ikusten den gunean. Udal brigada hasi da gunea prestatzen eta azpiegitura lanak egiten, eta bien bitartean udalak martxan jarri du komuna erosteko lizitazio prozesua.

Zaborrontzi berriak herri gunean

Argazkikoa bezalako zakarrontzi berriak jartzen ari da Udalak herri guneko zenbait kaletan (Foruen plazan, Kale Barrian, Kale Zaharrean eta Unibertsitate etorbidean). Partaidetzazko Aurrekontuetan herritarrek lehenetsitako inbertsioetako bat izan zen. Edukiera handiagoa dute ontzi berriek, batez ere ontzi arinen konpartimentuak, eta diseinu aldetik ere argiago ikusten da nora bota behar den hondakin mota bakoitza. Udalak *Sormen* enpresari erosi dizkio zaborrontzi berriak 14.470 eurotan, eta udal brigadako langileak ari dira instalatzen.



Garapenaren aldeko elkartasun proiektuetaako laguntza deialdia

Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzako proiektuak garatzeko (110.000 €), sentsibilizazio edota hezkuntza jarduerak diruz laguntzeko (3.000€) eta larrialdi edo laguntza humanitarioko egitasmoak finantzatzeko (12.000€) diru laguntza deialdia egitea onartu zuen udalbatzak urtarileko osoko bilkuran. Lehenengo kasuan, 30 eguneko epea egongo da eskaerak aurkezteko, deialdia GAOn argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Bigarren ataleko laguntzak abuztuaren 31ra arte eskatu ahal izango dira, eta hirugarrenekoak azaroaren 30era arte.



Turismo Plan berria egingo du Udalak

► Lurdes Romano buru duen Beinke aholkularitza enpresa kontratatu du Udalak

2010ean egin zuen Udalak Oñatin turismoa garatzeko azken plan estrategikoa, eta berau eguneratu eta osatzeko unea dela erabaki du udal gobernu taldeak. Azken urteotan turismo sektorean eman diren aldaketa eta joera berrietara egokitzea da helburua, Oñatik dituen hutsuneak osatu eta eskaintza eguneratuz, kalitatezko turismo jasagarriaren ikuspuntutik beti ere.

Horretarako, Lurdes Romano oñatiarra buru duen Beinke aholkularitza enpresa kontratatu du Udalak. Turismo planak egiten eskarmentu handia du Beinke; besteak beste, Urola-Kosta, Añana, Arabako mendialdea, Gasteiz eta Urdaibaiko planak egin ditu.

Kontuan hartu behar da, gainera, Lurdes Romano Oñatiko lehen turismo teknikaria izan zela, eta ondo ezagutzen duela herria eta sektorea. Udalarentzat berme bat da esperientzia eta herriaren ezagutza uztartzen dituen enpresa batekin lan egitea, eta Romanok adierazi du erronka berezia dela beretzat.

BI FASETAN

Bi fasetan egingo da Plan Estrategikoa. Hemendik maiatzera bitartean diagnostikoa egingo da, turismo sektorean diharduten eragile publiko eta pribatuaren iritzia aintzat hartuz.

Bigarren fasean, urteko bigarren seihilabetekoan, ekintza plana zehaztuko da, diagnostiko fasean landutako AMIA (ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak) txostena abiapuntutzat hartuz, eta 2021. urtetik aurrera hasiko lirateke ekintzak inplementatzen.

Arrikruz-Oñatiko

Kobak sarituak

Kudeaketarako bikaintasun saria jaso du Arrikruz- Oñatiko kobak Madrilen, Koba Turistikoaren Elkartearen (ACTE) eskutik. 2018an zehar Arrikruztzeko lehoiaren inguruan egindako hedapen eta hezkuntza lana saritu nahi izan du ACTEK.

Koben inguruko

jardunaldiak eta

hitzaldia

ACTE (Koba Turistikoaren Elkartea) eta Kantauriko kobek (Mendukilo, Arrikruz eta Pozalagua) jardunaldi teknikoak burutuko dituzte otsailaren 5, 6 eta 7an.

Hilaren 6ko jardunaldiak Oñatin izango dira, turismo bulegoan. Goizeko 11etan hasita, koba ezberdinetako esperientziak partekatzearaino, kalitatearekiko konpromisoaren inguruko komunikazioak aurkeztuko dira. Bazkalondoa Arrikruztzeko kobara bisita egingo da. Jardunaldietan parte hartu nahi duten herritarrek izena eman behar dute (ialtube68@gmail.com / 943718808).

► **HITZALDIA.** Arratsaldean (18:30) herritar guztiei zuzendutako hitzaldia egongo da kultur etxean. **Aritz Villaluenga** EHUKo ikertzaileak **Arrikruztzeko lehoiaz** eta Oñatiko **ondare paleontologikoaz** hitz egingo du.

DEIALDIA

UEMAren udaleku ibiltarian lan egiteko begiraleak eta sukaldariak behar dituzte

Ekainaren 29tik uztailaren 5era, Zumaiaetik Lekeitiora UEMAK (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) antolatuta egingo den udaleku ibiltarian 14-18 urte arteko gazteen lan egiteko begiraleak eta sukaldariak behar dira. Bidali curriculumak hezkuntza@uema.eus helbidera **otsailaren 14a** baino lehen. Begirale titulua edukitzea, EGA edo baliokidea, hezkuntza arloko ikasketak, lan eskarmentua, euskararekiko sentsibilizazioa eta talde-lanean aritzeko erraztasuna baloratuko dira.

DIRULAGUNTZAK

Ikastetxe eta guraso elkarteentzako diru laguntza deialdia

Herriko ikastetxeek eta bertako Guraso Elkarrekin eskolako jardueraz kanpo gauzatu asmo dituzten ekimenen laguntzeko 87.000 euroko diru-atala dauka aurtengo udalak; 81.000 euro ikastetxeen aurkeztutako proiektu hezitzaileak gauzatzera bideratuko dira, eta beste 6.000 guraso elkarten ekimenak sustatzera. Eskaratu udal bulegoetan aurkeztu behar dira **otsailaren 11a** baino lehen.

DATUA

11.500 biztanleren langa gairatu du Oñatik

Urtarrilaren 1eko datuen arabera, 11.510 lagun geunden Oñatin erroldatuta, duela urtebete baino 130 gehiago. Iaz 93 haur jaio ziren eta 107 herritar hil, baina kanpotik etorritako jendeari esker erroldatuen kopuruak gora egin du.



Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es



Bidea asfaltatzen
Garagaltza auzoan

Landa-bideak konpontzeko hainbat lan egin ditu udalak

Iazko urte amaierako euriteek auzo-bideetan eragindako kalteak konpondu eta auzo-alkateen foroan onartutako 2019ko landa-bideak egokitzeko plana osatuz, hainbat lan egin ditu udalak azken asteetan, argazkietan ikusten den moduan. Duruaren, Amiño, Andolatza eta Urrexolako Errota baserrietarako bideetan behera eginda zeuden bide zatiak egonkortu dira, eta laster konponduko da Santa Krutz baserriarako bidea ere. Korta baserriarako bidea ere lau gunetan konpontzen ari dira, eta Tokillotik San Jurgirako bidean trikitx-lekuak egokitu dituzte. Bestalde, asfaltatze lanak egin dira Berezaio eta Garagaltza auzoko baserrietarako bideetan. Denera, 110.000 euro (BEZ gabe) inbertitu ditu udalak konponketa lanok egiten.



Duruaren
baserriarako bidean
egindako lanak

DIRULAGUNTZAK

Euskara arloko diru laguntza deialdia egin du Udalak

2020ko diru laguntza deialdia egin du udaleko Euskara sailak. Bi laguntza lerro daude: 1. Errotuluak, irudi korporatiboa eta webgunea euskaraz jartzen dituzten entitateei zuzenduta; 2. Euskara ikasteko laguntzak. Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunetik aurrera aurkeztu daitezke eskaerak. Ikastaroen kasuan, berau bukatu eta hilabete epean aurkeztu behar dira. Errotulu eta webguneetarako eskabideen kasuan berriz, jarri aurretik egin behar da eskaera, hizkuntzaren aldetik testua zuzena dela egiaztatzeko.

ENPLEGUA

Debagoieneko Enplegu Azoka otsailaren 13-14an egingo da Arrasaten

Otsailaren 13an (9:30-17:00) eta 14an (9:30-14:00) Arrasateko Garaia Parke Teknologikoan egingo da Enplegu Azoka, Mankomunitateak antolatuta. Hainbat sektoretako (merkataritza, zaintza, ostalaritza, automatizazio industrial eta robotika, teknologia adimendua, ingurumena, elektronika...) enpresak egongo dira bertan, beraien eskaintzak eta beharrak azaltzen. Lan bila dabiltzan pertsonak CVak utzi, beraien burua aurkeztu eta zuzeneko elkarrizketak egiteko aukera izango dute.

Gazte kualifikatuen laneratzea helburu duen HAZILAN programa otsailean hasiko da

Debagoieneko Mankomunitateak sustatuta, HAZILAN programaren 8. edizioa jarriko da martxan otsailaren 21ean. Bi fase ditu: 80 orduko tailerra, kompetentzia pertsonal eta profesionaletan trebatzeko, eta, ondoren, praktikaldia eskualdeko enpresetan. Goi mailako zikloren bat edo unibertsitate ikasketak amaituta dituzten 20-44 urte arteko gazteei zuzenduta dago. Plazak mugatuak dira. 2016an jarri zen martxan **Hazilan** proiektua, eta bertan parte hartu duten 85 pertsonetatik %67ak aurkitu du lana. Informazioa: 943793090/hazilan@debagoiena.eus.



Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6
T.: 943 781 648
onati@gualbiasesores.com
-
www.gualbiasesores.com

HIKALAGUNA OÑATIN

► **Hika** berba egiten ikasi nahi dutenentzako 'Hikalaguna' egitasmoa jarriko da martxan

► **Otsailaren 14an** (19:00) egingo da taldeak osatzeko bilera, Euskaldun Berria gelan

Emakumezkoen hitanoa biziberritzeko asmoz Oñatin iaz sortu zen **Ingo xonau!** proiektuaren baitan, **HIKALAGUNA** ekimena jarri nahi da martxan, eta horretarako bilera otsailaren 14an egingo da Euskaldun Berria gelan (Bidebarrieta, 18), 19:00etan. Hika berba egiten dakitenak eta ez dakitenak elkartuko dira, eta taldetxoak osatuko dituzte, gero berriketan jarduteko. Talde txikiak astean behin elkartuko dira, ordubetez. Nahi duten tokian eta orduan. Bi hilabetezko frogatxo izango da. Bi hilabeteren buruan afaria egingo dute guztiek batera, esperientziatrukea egiteko, elkar ezagutzen eta hika praktikatzeko jarraitzeko.

NESKA ETA MUTILENTZAT

Beraz, *hikalaguna* eduki nahi duten guztiak ager daitezela otsailaren 14ko bilerara. "Dakitenak eta ikasi nahi dutenak, denak animatu daitezela. Berdin du oso gutxi edo ezer ez jakinda ere. Hitz egitera ausartzen ez direnei belarria egiteko balioko die" adierazi du Idoia Etxeberriak, proiektuko arduradunak.

Ingo xonau! proiektuan orain arteko lanketa batez ere emakumeekin egin bada ere, *Hikalaguna* ez da emakumeentzat bakarrik izango: "neska eta mutil, denetik egotea komeni da, bi erregistroak erabili ahal izateko" azaldu du Etxeberriak. Adin aldetik ere ez dago mugarik. (Kontaktua: idoia@ahotsak.eus).



"Hika ikastia eta praktika itia gura don/k? Ointxe dakan/k aukeria. Etorri otsailaren 14ko bilerara!"

HIRUKIDEn aurkezpena Oñatin

Euskadiko Kide Ugariko Familien Federazioa, HIRUKIDE, Oñatin izango da martxoaren 5ean (kultur etxean, 18:00etan), elkarteak eskaintzen dituen zerbitzuak eta jarduerak ezagutzera emateko, familia ugariak dituzten laguntza eta hobari publikoen inguruko informazioa emateko, eta kolektiboaren iradokizunak eta erreklamazioak entzuteko. Familia ugari guztiak eta laster familia ugari izango direnak daude gonbidatuta.



Duintasun kit-ak errefuxiatuentzat

Azken hilabeteotan iturri ezberdinetatik jasotako diru laguntzei esker, duintasun kit-ak (arropak, txankletak, edalontzia, toalla eta zereal barratxoak) prestatu ditu Hotz-Oñati taldeak Mediterraneo itsasoan erreskate lanetan diharduen Aita Mari ontzira bidaltzeko. Atenasko ontziola batean mantentze lanak egin ostean, pasa den astean itsasoratu zen berriz ere Aita Mari ontzia Hotz-Oñatik bidaltitako 150 kit bereziak barruan zituela.




TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



Inauteriak ate joka

Ilbeltza joan zaigu dagoeneko, Soka dantzarekin eta tertuliarekin gozatuta. Kolore urdin, gorri eta zuriak eman diote bizitasun eta tonalitate aberatsa urtarileko iluntasunari, eta gorulariok gaude oso harro herritarren muga bariko eskuzabaltasunaz: eskerrik asko.

2020. urteko lehendabizikoari eman diogu, hortaz, amaiera, eta irrikaz gaude bigarrenekoa ospakizunez gozatzeko. Izan ere, bigarren honetan euskaldunok hain begiko ditugun inauteriak ditugu jomuga. Hamaika herritan ematen dira, Euskal Herrian, inausketa ospatzeko jaiak, baita gurean ere 80. hamarkadatik aurrera, Oñatzek antolatuta, behintzat. Ordutik ematen dira inauteri igandeetan Luzaideko bolant dantza ederrak kalez kale.

Hori gutxi ez, eta 90. hamarkadan herritarrek jaiok ospatzeko zuten gogoa ikusita hasi ziren inauterietako larunbatean Lantzeko zortzikoak, kaldereroen konpartsak eta Lapurdiko jauziak ematen, herri bakoitzeko pertsonaiak, baita ere, irudikatuz.

Urte batzuez, baina, ez zen era horretako inauteririk ospatu gurean, harik eta 2013. urtean urtebete lehenago antolatzen eta lantzen hasitako Oñatiko inauteriak sortu ziren arte. Eta, nahiz eta aurtengo negua horren gogorra ez izan, akaso, guk esnatuko dugu hartza lozorrotik, udaberri atarian.

Hain zuzen ere, zortzigarren ez esnatuko dugu animalia.

Espero dugu aurtun ere herritar andanak egitea bat herriko inauterietako lan taldearen proposamenarekin, eta aurtengoa ez izatea gutxiagorako. Gure partetik, behintzat, ahaleginak egingo ditugu; izan ere, 50. urteurrena ospatzen dugunez, larunbat eta igandean egindako urteroko emankizunez gain, badaukagu proposamen berezi bat, gure transmisiorako bokazioa hauspotuko duena.

PROPOSAMEN BEREZIA

Eguen gizenean –hilaren 20an– aterako dira kalera herriko ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako neska-mutikoak Oñatiko inauterietako *Ume handia* eta *Hartzaren polka* dantzatzera, kalejiran abestuz ibiltzeaz gain. Proiektu hau ez da, gainera, lan isolatu bat; izan ere, herriko kultur ondarearen transmisioan dauka jarrita gogoa lan taldeak, udalarekin batera *Hurretik*

Transmisiorako bokazioa hauspotuz, aurtun LHko 5. eta 6. mailako neska-mutikoak kalejiran aterako dira otsailaren 20an, Oñatiko inauterietako *Ume handia* eta *Hartzaren polka* dantzatzuz eta abestuz

herri curriculum landuz.

Aurtengo inauteri jaiak indartsu datoz, hortaz, eta ez genuke gurako mezu hau amaitzerik esan barik herritar guztiok zaudetela gonbidatuta jaiaren era batera edo bestera parte hartzera.

Aupa Oñatz!

Iñigo Murgiondo Agirre (Oñatz-50 Komunikazio taldea)



caravanas oñate bizikleta dendaren izena eta irudia aldatu ditugu

hau da dendaren izen berria:

Oñabike

Facebook icon Instagram icon Otadul 25, Oñati Tel.: 943 78 05 65

bisita gaitzazu!!



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Burger King-en irekieraren harira

Jon Aiaitui eta Enaitz Ibabe,
Oñatiko Ernai-ren izenean

Azken hilabetetan ikusten ari gara Arrasateko Eroskiren aparkalekuan abiadura izugarrian eraikitzen ari diren eraikina. Ezaguna den bezala, bertan Burger King multinazional famatua irekiko dute. Gure bailaran ezarriko den lehena, nahiz eta mota honetako zabor-janariaren beste negozio batzuk ere ireki izan diren aurretik.

Agerikoa da Burger King enpresak kalte ugari sor ditzakeela. Lehenik janari merkearen salmentaren bidez Oñatiko eta bailara osoko jatetxeei eragindako kalte ekonomikoa handia da, hauetan kontsumoa jaitsi daitekeelako. Gainera multinazionalak salduriko produktuak kanpotik ekarriak izango dira, inguruko nekazari eta abeltzainen kalterako. Gure herrian gastaturiko dirua, batez ere herrian geratzen da, baina argi dago denda honek izandako irabaziak ez direla bailaran geratuko, kanpora joango direla aberatsen baten patrika betetzera. Herria bizirik mantentzea nahi badugu herriko ostatu, taberna eta jatetxeen alde egin behar dugu, horrelako multinazionalak alde batera utziz.

Beste alde batetik negozio honek langileak beharko ditu. Langile hauek betiko bezala inguruko gazteak izango dira. Horrelako tokietako lan baldintzak oso prekarioak izan ohi dira. Soldata kaxkarrak,

kontratu motzak, segurtasun gutxi eta abar luze bat. Ez dugu horrelako lanik nahi, ez dugu modu prekarioan bizi nahi, lanerako baldintza duinak baizik.

Denda soil baten irekieratik haratago jotzea da gure helburua, hau ematen ari den aldaketa orokorrako baten erakusleho delako. Jatetxe honekin batera gure herrian kontsumo eta lan eredu aldatu edo okertu nahi dute. Herritarren kontura aberasten jarraitzea bilatzen dute. Ekonomikoki eta politikoki bote-restuenak direnak miserian nahi gaituzte beraiek aberasten jarraitzeko. Ez dugu bizirautera mugatzerik nahi, gazteontzako bizitza duinak defendatzen jarraituko dugu.

Epaia izatetik baino, inkisizioa

Beñi Agirre, historialaria

Iruña-Veleiako grafitoak, idazkiak, faltsuak izan al daitezke? Bai. Benetakoak izan al daitezke? Bai. Inork ez du ez bata ez bestea frogatu. Hortaz, zer da Iruña-Veleiako aferan epaitu nahi dena? Faltsutzailea? Nola epaituko da bada, benetakoak ere izan daitezkeen idatzi batzuen faltsutzailea, horrela direla frogatu aurretik? Hau da, Pablos Pedro hil egin zuela Madrileko prentsa zabortzaleak argitaratu ondoren, Pablo epaitegira eramatea bezala da. Pedro bizirik dago eta! Bai, zirku txar honek epai garbia izatetik baino Inkisiziotik gehiago du.



Argazkia: Goiena

Ekain Txou Gaztetxean. Eskerrik asko.

Gazte Asanbladak antolatuta, Antixena gaztetxea lepo bete zen urtarilaren 12an Ekain Txouren ikuskizunaz bertatik bertara gozatzeko. Sarrera guztiak agortu ziren, eta bertan bildutako haur eta helduek gogotik disfrutatu zuten. Gainera, hurrengo urtean ere ikuskizun berriarekin etorriko dela hitza eman zuen Ekain Ibarguren. Gaztetxeak eskerrak eman nahi dizkie bertan batu ziren haur eta guraso guztiei eta Ekaintxouri.



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com



Oñatz dantza taldea. Etenik ez duen soka

Hasiera bikaina eman zion Oñatz Dantza Taldeak 50. urteurrenari. Herritarren aurreran, belaunaldi ezberdinetako dantzariak eskutik helduta, Euskal Herrian eta Oñatin erro sakonak dituen soka-dantza egin zuten, Oñatzen izaera eta historiaren ezaugarri eta ardatz diren balioak agerian jarritz: nortasuna, belaunaldi arteko transmisioa eta auzolana.



ARATZ LOSADA

OHAR ETA DEIALDIAK

► 85eko KINTTADIA

Aupa gaztiak! 35 kastañak zelebratutako kinttadia organizaitlea pentzau du. **Martxoaren 14an** izango da, eta lekua jende kopuruaren arabera hartuko. Horretarako, **otsailaren 14a** baino lehenau apuntu ondorengo estekan (<https://85kinttadia.ml>). Animau!! Interesa euki ezkeru, whatsapp talde bat dau sortuta.

► 'Ticket BAI' eta 'BATUZ' sistemei buruzko hitzaldia

Datorren urtean Gipuzkoan indarrean sartuko diren **Ticket BAI** eta **Batuz** sistemen inguruko informazioa emateko hitzaldiak egongo dira **otsailaren 12an**, Santa Ana aretoan, 15:00etan eta 20:00etan, Gualbi Aholkularitzak antolatuta. Gipuzkoako zergadunen fakturazioa kontrolatu eta, bide batez, iruzurrari aurre egiteko asmoz, Gipuzkoako Ogasunak 2021ean martxan jarriko dituen sistemak dira Ticket BAI eta BATUZ. Negozio bat duten eta interesa duten herritar guztiak daude gonbidatuta hitzaldira.

► Genero berdintasuna aldarrikatzeko ANTZEZLANA

Antzerkigintzak eskaintzen digun lengoaiak baliatuta, genero berdintasuna aldarrikatzeko eta emakumeek paratzen dituzten eskubide urraketak salatzeke antzerki emanaldia antolatu du Elkar Hezi ikastetxeak, SETEM GKEarekin elkarlanean eta udaleko Berdintasun sialren laguntzarekin. Gloria Fuertesaren olerki bilduma erabiliko dute ikuskizunaren ardatz gisa, eta Andoni Salamerok zuzenduko du ikuskizuna. **Martxoaren 6an**, Santa Ana antzokian, 19:30etan. Herritar guztiak daude gonbidatuta.



Presoen aldeko zozketan saritua

Herriko presoen alde Gabonetan antolatutako zozketan 3354 zenbakia (ordezkoa 4313) atera zen saritua. Jabi Casado oñatiarrak zeukan zenbaki saritua eta berak jaso zuen oparia, gabon saski zoragarria, goiko argazkian ikusten den moduan.



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60
etxian@etxian.net
www.etxian.net



Mota guztietako zurgintza-lanak
Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

OÑATIKO UDALEKO

ARAZERIXAN

HAUR ETA GAZTERIA SAILA



Gure ekintzen berri emango duen atala...

TXALOKA INDARBERRITUTA!!

Urte berriarekin batera, gure etxera bueltatu gara. Ludoteka berritua, filosofia berritua, material berritua, indarrak beteak eta Amets eta proiektu ugari esku artean.

Badaramatzagu aste batzuk gure ludotekan eta sumatu dugu modu positiboan eragin duela aldaketak. Haurrak gogotsu etortzen dira gurera eta esperientzia berriak bizitzen ere ari gara. Baita, matrikulazio berriak ere. Orain egokitzapenarekin gabiltza lanean.

Inaugurazioak arrakasta izan zuen. Oñatiar asko hurbildu ziren gurera, jolastera eta Ostiral arratsaldea goxatzeko Aiertan kontzertua ikustera. Luntxa ere ez zen makala izan. (argazkiak) Espero dugu sentrazio positiboak jaso izana eta berriz ere gurera hurbiltzea.

Datozen hilabeteetan ere ekintza ezberdinak egiteko asmoa daukagu. Hasteko, herrira begira eta ludotekari hauspoa emate aldera hilero behin, ostiraletan, ekintza berezia egingo dugu. Izan ipuin kontalaria, pailazoa ... joango gara datak zehazten.

Otsaila, Martxo eta Maiatzean zehar ohikoa dugun Ludoteka ibiltaria egingo dugu eta bertan modu parte hartzailean haurrek beraien nahi eta gogoetatik erabakitako ekintzak egiteko aukera izango dute. Ideia ezberdinak planteatuko dizkiegu, txorimalo tailerra, naturan jolasean, esku lanak ... beraiek horiek eta gehiago planteatu eta gauzatzeko aukerak eskainiko zaizkie. (Aurreko urteetako argazkiak)

Udaberriko oporraldia ere tarteko izango dugu Apirilean eta hor ere jolasean goxatzeko aukera izango dute oñatiko haurrek. Apirilaren 8, 9 eta 10etan arratsaldean eta 14, 15, 16 eta 17a goizez herriko gunen ezberdinetan, dinamika dibertigarri eta anitzak planteatuko ditugu. (aurreko urteetako argazkiak)

Aurrerago zehaztapen gehiago emango ditugu eta gurekin goatzera animatzen zaituztegu.



Merkealdiak?



Urtero bezala, urtarrileko merkealdiak igaro berri dira, eta deigarria da gauzen prezio baxuak, bai aurrez aurre erosiz gero, establezimenduetan, bai merkataritza elektronikoaren bidez eginez gero. Nola da posible prezio horiek aurkitzea, milaka kilometro bidaiatu duten produktuetan ere? Norbaitek esango du: teknologia. Bai, baina badaude beste arrazoiak, eta oso sakonak, esaterako prekaritatea eta esplotazioa (askotan esklabotza-baldintzetan); lurzoruen eta lurpearen larriki kutsatzea; gure herri eta hirietako gizarte-sostengua diren hurbileko merkataritza txikiaren suntsipena; edo ate joka jada ari den klima-aldaketa modu arriskutsuan gizentzea.



Luis Guridi

Erosten dugun ia guztia erengatik ordaintzen ditugun prezioak benetan islatzen al dute ekoizpenaren, garraioaren eta merkaturatzearen benetako kostua, ekonomia konbentzionalak ikusarazi nahi digun bezala? Nork ordainduko ditu giza bizitzetan, gaixotasunetan, uztetan, azpiegiturretan, gizarte-gatazketan eta abarretan gero eta ohikoagoak eta muturrekoagoak diren gertaera klimatikoek eragingo dituzten triskantzen kostu izugarriak?

Baina, are gehiago, nola neurtu gizarteratzen diren kostu horiek? Ez da gauza erraza, ez bakarrik ez dakigulako zer ondorio ekarriko duten iraganean eta gaur egun neurriak hartu ezak, baita ere ez dagoelako adostasunik zer neurtu behar den erabakitzerako orduan. Etorkizunean sortuko diren kalteak edota oraindaino

egindakok ere bai?. Zenbat kostatuko litzateke, adibidez, munduan zehar, Europa barne, agrokimikoz eta pestizidaz kutsatuta dauden lur sailak garbitzea?. Eta ibai, itsaso, eta mendiak?. Edo aire garbia edukitzea?. Hainbat estimazio egin dira azken urteotan eta izugarriak dira.

Justizia ekonomiko hutsean, hamarkadetan zehar egin ditugun kalteak, baina bereziki azken hauetan, une bakoitzean ekoiztu ziren produktuen kostuari kargatu beharko litzaioke, eta orduan ez ziren hain merkeak izango. Baina ez zen horrela egin, kostu horiek gizarteratu ziren, eta gaur egun ere, neurri handi batean, horrela egiten da. Baina nola hala ordainduko dugu.

Merke saltzen diren gauzak ez dira merkeak. Etorkizunari kreditua lapurtu diogu, baina badirudi kreditu hori amaitzeaz dagoela. ■

Epidemia, Pandemia



Txinako Wuhan hiria eraso duen *coronavirus* zepa berriak belarriak tente jarri dizkio mundu osoari. Asia ingurutik etorri diren birusek (gripearena, *gripe aviario* zeritzona edo SARS), munduko beste herrialde eta agintarien arreta infekzio-fokura eramatea lortu dute. Diotenez, era honetako epidemiak sortzen dituzten birusak geroz eta indartsuagoak dira, nahiz eta honako *coronavirus* delakoa hain hilkorra ez izan. Dena dela, jada 80 pertsona baino gehiago hil dira birusaren ondorioengatik eta, antza denez, estatistikek gora egingo



Amaia Aranzeta

dute birusa Beijing bezalako hirietara heldu den honetan.

Gizakietara transmititzen den birus hau ere hasiera batean, animalietan soilik aurkitzen zen katarroaren eragileen familiako birus bat da, zeinak animalietatik gizakietara pasatzean Txinan hasi den epidemia abiarazi duen. Inork ez daki zehatz-mehatz birusaren jatorria non dagoen, edo, zein izan den, baina jakina da, abeltzaintza intentsiboak eta animaliak hazteko erabiltzen ditugun moduak eragin zuzena izan dutela birusaren hedapenean. Orain dela urte batzuk, Afrika kolpatu zuen *Ebola* birusak ere animalietan izan zuen jatorria eta haietatik gizakietara igaro zen, agian, batzuetan guk geuk eragiten ditugun etikaren

aurkako praktikak direla medio.

Bidaiatzea eta globalizazioa hain modan dituen gizartean, epidemia bat pandemia bihurtzea ia ekidinezina da, milioika pertsonarekin dugu-eta ia momentu oro harremana. Baina, hau saihesterik ez badago, saia gaitezen, behintzat, 1918ko gripearen pandemia bezalakorik gertatu ez dadin.

Argi dago gaur eguneko bizi-estilo ugari gure kontra eragiten dutela eta bihar edo etzi ondorio lazgarri ugari etor litezkeela horiek direla medio. Hau esanik, kaltegarriak diren bizi-estiloak aldatzea beharrezkoa dugu lehenbailehen, egunen batean pandemiaren batek gizadi osoa hil aurretik. ■



Bigarren mundu-gerria akabo zanian, basuan ibiltteko gai ziran 'jemeze' kamioiak etorri ziran. Ondoko argazkixetan Felix Barrena agerketan da bere GMC kamioiarekin

Basogintzaia (6)

Eskulan hutsetik mekanizaziñora

ERREPORTAJIA / ROBERTO ALTUNA ERLE

GMCIak AGERTU AHALA KARRETERUAK URRITU

Basora be mekanizaziñua ailegatu zan poliki-poliki, eta ganaduakin lana egittetik makiñakin egittera pasau giñan. 1960ra arte, basuetako karreterotzarik gehixena irixakin egitten zan, eta garai hartako karretero famosuenak Larrañakuak ziran (Irazabal, Urubil, Errekalde, Elordui bixak, Urikua, Leibar, eta, azken aldera, Erbiko Luxio), baiña karretero-kuadrillak ixixa auzo danetan egozen: Olabarrrietan, Garibain eta abarretan. Normalian egur-karriuan ibilliko ziran, baiña baita ikatz-karriuan be. Ikatza txondor-zulotik etxe edo fabriketara karriau be egin bihar izaten zan eta horretarako egozen **karreteruak**. Kamioiak agertu arte, horreitxek izaten ziran inguru honeittako transportistak. Gaiñera, baso-lanetan, pistak moldau arte iraun euen. Burdixetan eruatzen zittuain euren karga galantak, eta pisu astun edo buelo haundikuetarako **bolante** izeneko burdi haundixaguak



Dolatxeko Jose Joaquín Egaña ikatz-karriuan, mekanizaziñua ailegatu aurreko sasoian

ebalten zittuain. Zeregin horreitarako irixak izaten ziran tiratzaillerik onenak, eta terrenua aldapatsua baldin bazan, beste iri-pare bat edo behi-pare bat eransten xaten aurretik.

Bigarren mundu-gerria akabo zanian, basuan ibiltteko gauza ziran 'jemeze' kamioiak etorri ziran. Amerikanuak gerria irabazi ondoren, European itzi zittuain merke salduta. 1950etik 1980ra bittartian -gutxi gorabehera- ibilli ziran gure basobide eta errepidietan, eta kamionero ibillitakuen artian honeik aittatu geike: Harrijoillenekoa Jabier Idigoras, kalekua; Errementariko Eugenio Goitia eta Uriarte Garaiko Eusebio Uriarte, Araozguak; Munazategiko Felix Barrena, Torreazokua; Joxe Auntzo, Errastiren jemezia ebalten ebena; Kandido Baleztena 'Napartxua'; Zubiaurreko zerrako Juanito Igartua, Zubillagakua; Barrenzelaiko zerrako Jabier Olalde; Jose Luis Ugarte; Manuel Ibarbia 'Noski', Bidania-Goiazgua zana izatez ... Jemeze horreik basuan ez eze,



Ezkerrian, Bixente Unzurrunzaga Iñaxio anaiarekin, piñuak saltzen Madrillen.

Goixan, Bixente bera (zutik, ezkerretik bigarrena) bere lantaldiarekin, piñuak landaketan.

baserritarako pistagiñan eta obretan, teillerixetan eta abarretan be ibilli ziran, eta hamalau izan ei ziran danera.

TRONTZATIK MOTOZERRARA ETA BURDITTIK TRAKTORERA



1968tik 1970era bittartian aldaketa edo eboluziño galanta etorri zan material barrixen sorreriarekin: kartoia, plastikua, aluminiua... Egurra botateko be motozerrak agertu ziran, ordura arte dana aizkoraz eta trontzaz egitten zan-eta. Aizkoria epaia egitteko balixauten zan, norabidia markaitteko, eta trontzia gero, ebateko. Arbolia botatakuaz, berriz, oholak etarateko arpana izeneko eskuko zerria ebalten zan bi lagun artian, batek goititik eta bestiak behetik sakatuaz. Gerra ostian, Aurrekomendixan, Koixkar azpiko hariztui bat bota ondoren, nappar kuadrilla batek oholak etaraten jardun ei eben arpanez, basuan bertan egurrak zerraatuaz.

Antoneneke Pakok dixuenez, Oñatiko lehenengo motozerria Artxubira aillegau zan eta basora probaittera fan ziranian, Olabarrietako hogeita hamar lagun begira ei egozen makiña barrixak zela egitten eben lan, gero eurak hurrengo egunian eroatera fateko. Motozerrak,

Francoren denporan, eurak balixo euena baiño inpueto haundixagua pagauta ekarten ziran Frantziatik. Pako Bordeleko ferixan be egonda dago erremintta horreik ikusten, baiña hain karuak ziranez, estraperloz ekarri bihar izaten ziran papelik eta ezer be barik, eta, jakiña, problema zan, papalak zuzen ezpazeukan, guardabazillak basora lanian zegontzen lekura etorri eta multa galantak ifintten zittuailako. Motozerriaren zaratia urriñetik entzuten danez, zagozen lekuan zagozela, salduta geraketan zara, eta kontu horrekin betik billurrez ibiltten zirala dixo gure Pakok. Urte batzuk geruago, merkadua liberalizau zanian, motozerrak edozein lekutan saltzen hasi ziran.

PIÑU-MINTTEGIXAK



Basuari etekiña etarateko beste modu bat minttegixak edo sabixak ifinttia izan zan. Lan horretan aittatu biharrekua Osiñagako (Urrusula) Bixente Unzurrunzaga Lizarralde dogu. Berak abixau eben gabon-arbolen negoziua 1962xan eta bere lau semiak jarraitu euen 1997ra bittartian zeregin horretan. Minttegittan etaratako piñu txiki horreik Madrilleko Plaza Nagusixan saldu izan zittuain ge-

hixenbat, baita Espaiñiako beste leku batzuetan be, tartian-tartian.

Madrillera eruan ziran lehenengo piñuak Mallako udalaren sailletik mihas-tutako(*) abetuak izan ziran. Tratua izan zan salmentia ondo urten ezkerro, hainbateko bat ordainduko zala eta bestela parra egingo eueilla; ondo urten ebenez, berbaatutakua ordaindu eta handik aurrera urtero faten hasi ziran Madrillera.

Minttegiko lana haxe izaten zan:

Udazkenian piñu-kaskaria batu, abeto gorrixarena, lariziora zein insignisarena —beranduago normandiana izenekua be landatu euen—. Gero hazixak askatu eguzkittan jarritta, edota, gasoillaz ebillen berogailluaren bittartez berotuaz. Eta, azkenik, martixan erein, herri barruan ekuain minttegi honeittan: Urrusulagarain, Biribillen, Zubillagan eta Udanazabalen, hurrengo negurako gertu eukitteko. Eskuratutako kalidadia oso ona zan.

San Migelen bueltan neguko kanpaiña hasten zan, salmenta-kanpaiñiak berak abendu hasieratik Gabon egunera bittartian irauten baebe be. Horregatik, ixixa abenduko hil osua Madrillen egoten ziran ostatua hartuta kanpaiña akabaitten zan arte.

Bixenteren lan nagusixena minttegixak edo sabixak egittia izan zan; halaxe, **landarak etaraaz eta aldatuaz, bizitza eta etorkizuna sortzeen jardun eben bere munduko denpora guztian**. Araotz eta Arantzazu bittarteko Arabako mendixetako koniferak eta hostrozabal gehixenak, esaterako, berak sartutakuak dira.

(*) Mihastu edo bakandu = *entresacar*. ■



ALOÑA MENDIKO TXIRRINDULARIEN ELKARTEA 1.999		MARTXOA		APRILIA	
 OÑATIKO BIZIKLETERUAK		Di. 7	Oñati - Dorleta - Oñati (10.00) 35 KM	Di. 4	Oñati - Sabatze - Marzuola - Aizola - Oñati 95 KM
		Di. 14	Oñati - Barakaldo - Oñati (16.00) 40-45 KM	Di. 11	Oñati - Arlabar - Gernika - Muguru - Oñati 110 KM
		Di. 21	Oñati - Etxebarri - Oñati (12.00) 65 KM	Di. 18	Oñati - Oñati - Koldoza - Oñati 80 KM
		Di. 28	Oñati - Aizola - Gernika - Oñati 75 KM	Di. 25	Oñati - Aizola - Gernika - Oñati 85 KM
SARTIA DA OÑATIKO ELKARTEA LA ZIKLO BIKI ELKARTEA ELKARTEA OÑATIKO ELKARTEA		OÑATIKO ELKARTEA ELKARTEA OÑATIKO ELKARTEA ELKARTEA OÑATIKO ELKARTEA		OÑATIKO ELKARTEA ELKARTEA OÑATIKO ELKARTEA ELKARTEA OÑATIKO ELKARTEA	

Goian eta behean, garai ezberdinetako herriko zikloturista taldeak. Ezkerrean, 'Oñatiko Bizikleteruak' taldeak ateratzen zuten urteko irteera egutegiaren adibide bat



Zikloturismoa bizi-bizirik dago Oñatin. Aloña Mendiko txirrindularitza sailak 2020rako tramitatu dituen 74 lizentziak (58 mutil, 6 neska eta 10 master-elite) horren erakusgarri.

Ukaezina da, hala ere, zaletasun hau bizitzeko modua eta filosofia asko aldatu direla urteen joan-etorriarekin.

1980ko hamarkadan sortu zen Oñatiko lehen zikloturista taldea, Aloña Mendiren baitan beti ere. Urte osorako irteera egutegia prestatzen zuten; martxoko lehen asteburuan hasi eta urriko azkenengoan amaitu. Ohitura zen aurreneko eta azkenengo irteeretan lore sorta eramatea txirrindularien zaindaria den Dorletako ama birjinari. Eta denboraldia boro-biltzeko baba-jana egiten zen.

Hogeita hamar bat irteera egiten zituzten; lehenengoak motzagoak (60-75 km.) eta poliki poliki gero eta luzeagoak (maiatza-uztaila artean 130-140 km. ingurukoak), eta azken aldera berriz ere motzagoak.

Igande edo larunbat goizetan egiten ziren irteeak, Santa Marina plazan abiatuta. Astiroen zebiltzanen abiaduran egiten zen ibilaldia. 'Hau zikloturismoa da, ez lehiaketa' irakur daiteke egutegiko oharretan. Ohikoa izaten zen geldialdixoa egitea bokadiloa jateko, eta, tarte, barraskilo kazuelatxoa ere bai, Legazpiko taberna ba-

tean. Batzuetan, bokadiloa jan behar zutenak lehenago irteten ziren, eta gero ibilbidean elkartzen ziren, denak batera bueltatzeko. Lagun giroan egiten ziren irteerak, lehiakortasun barik.

'OÑATI-OÑATI' PROBA

Aloña Mendiko zikloturistek antolatutako irteerez gain, Gipuzkoako federazioaren Challenge-ko probak ere egiten ziren; 10 bat urtean zehar. 'Gipuzkoako Itzulua' (+200 km.) izaten zen garrantzitsua. Challengeko 8 proba eginez gero 'Finalista' titulua lortzen zen eta Gipuzkoa mailako bazkaria egiten zen urte amaieran.

Oñatik ere izan zuen bere zikloturista proba (Oñati-Oñati) Challengearen barruan. Ekaineko lehen hamabostaldian jokatu zen bost urtetan, 1995etik 1999ra.

'Gipuzkoa ezagutuz' zen zikloturismoaren filosofiarekin bat egiten zuen beste erronka bat. Federazioak antolatuta Gipuzkoako 87 herrietara (irteera bakoitzeko gehienez 3) joan behar zen eta zigilua eman txartel batean. Dena osatuz gero diploma jasotzen zen.

Baina espiritu hori galduz joan zen poliki poliki. Oñatin 2000. urtean utzi zitzaion taldeko irteerak antolatzeari. Gizarteko beste hainbat arlotan bezala, zikloturisten artean ere lehiakortasuna hasi zen nagusitzen; gero eta marka hobeak egin nahiak ekarri zuen nork bere buruari begiratzea gehiago, taldeari baino. Zikloturistek jarraitzen dute errepidera irteten, baina gehienak bakarka edo talde oso txikietan ibiltzen dira.

Euskal Herri mailan gaur egun 20 bat martxa jokatzeko dira urtean zehar baina gero eta gehiago dira atzerriko probak egitera animatzen direnak, hala nola, Flandriako Tourra, Paris-Roubaix, Lieja, Lombardiako Giroa...



Irizar eta Azkarate protagonista DKS sarietan

DEBAGOIENEN KIROL SARIAK Urtarrilaren 28an eman zituzten Bergaran Debagoieneko kirol sariak, 2019an nabarmendu diren kirolariak saritzeko. Goienak, Mankomunitatearen babesarekin, antolatzen duen ekitaldian, Mikel Aristi txirrindulari bergararrak jaso zuen kirlari onenaren saria, eta Eskoriatzako gizonezkoen areto futbol taldearentzat izan zen talde onenarena. Kirol ibilbidearen saria Markel Irizarrentzat izan zen, eta baita Oñatiko Udalak ematen duen saria ere, txirrindularitzan egindako ibilbide luze eta oparoagatik, eta herriko enbaxadore lanak egiteagatik. Bere emazte Alaitzek eta semeek jaso zuten saria. Bestalde, Antxintxika Triatloi Taldeak urteko sari berezia jaso zuen, kirol egokituaren alde egiten ari den lana eskertzeko. Joseba Azkarate oñatiarrak jaso zuen saria.



Gabonetako I. Tennis Txapelketa

TENISA Urtarrilaren 26an jokatu ziren Aloña Mendiko tenis sailak antolatu duen Gabonetako I. Tennis Txapelketako finalak. Benjamin mailan Oier Juaristi nagusitu zen Ekain Pedregalen aurka; Alebin mailan aratz Legorburuk irabazi zuen Alai Elorzaren aurkako finala; Infantil nesketan Izar Unzurrunzagak gailendu zen Iraia Mugarzaren aurka; eta Infantil mutiletan Unai Gomezek lortu zuen garaipena Jokin Madinaren aurka. Denera 36 neska-mutikok parte hartu dute.

Eric Martin, Euskadiko txapelketako podiumean

KROSA Eric Martin Aloña Mendiko korrikalaria 3. sailkatu zen otsailaren 2an Gernikan jokaturako Euskadiko kros txapelketan 23 urte azpikoen mailan. Nahia Lasagabaster 7. sailkatu zen sub-18 mailan eta Beñat Guridi 17. sub-20 mailan.



Urrezko Aizkora txapelketako finalaurrekoa Oñatin jokatu da otsailaren 16an

HERRI KIROLAK 23 urte azpikoen mailako binakako Urrezko Aizkora txapelketako final aurrekoa jokatu da Oñatin hilaren 16an. Lau bikote ariko dira nor baino nor, eta hiru onenak finalerako sailkatuko dira. Horrez gain, bi harrijasotzaile ere ariko dira, Urrezko Txapelketaren barruan, eta emakumezkoen binakako aizkolaria txapelketako jardunaldia ere jokatu da. Foruen plazan, 12etan (eguraldia txarra bada, kiroldegian).

Aloñako Igoerarako izen-ematea

Otsailaren 8an zabalduko da apirilaren 26ko Aloñako Igoeraren parte hartzeko izen-emate orokorra www.sailkapenak.com atarian. Gehienez 300 dortsal banatuko dira eta joan den astean 83 oñatiarrek eman zuten izena iada.

Otsaileko mendi irteera Aramotz mendilerroa

Arratia eta Durangaldearen artean dagoen Aramotz mendilerroa izango da Aloña Mendiko mendi sailak **otsailaren 16rako** antolatu duen irteera.



Letagin taldeak Tolosako Bonberenean emandako kontzertuko une bat (Argazkia: Letagin)

Letaginen estreinakoa

Bere lehen diskoa plazaratu du Letagin rock talde oñatiarrak

Antixena gaztetxea lepo zela aurkeztu zuen pasa den astean bere aurreneko diskoa *Letagin*-ek. *Hard* eta *stonner* ikutuak dituzten zazpi abesti biltzen ditu taldearen izen bereko lanak.

Duela bi urte sortu zen Letagin. Aurretik beste musika-talde batzuetan ibilitako Xabier (*Show Business*), Unai (*Asfiksia* eta *Ro*), Mikel (*Show Business*) eta Julenek (*Bagauda*) osatzen dute laukotea. Taldekideen abizenekin osatutako izena da *Letagin*, baina eskenatokian duten izaera oldarkorraren isla ere bada.

Urte eta erdiko lokaleko lan isilaren ostean, iazko San Lorentzoko jaixetan eman zuten aurreneko kontzertua. Gerora, Getaria, Arrasate, Mutriku, Tolosa eta Oñatin (Ikatz eta Antixena) ere jo dute. Oso gustora ari omen dira, disfrutatzen, zuzenekoetan bereziki.

Abenduan geldialdixoa egin zuten diskoa grabatzeko, Andoingo Garate estudioan, Martxel Arkarazorekin, eta oso gustora daude han bizi izandako esperientziarekin eta emaitzarekin. Aker, Ona eta Ikatz tabernetan eta taldearen sare sozialetan (*Bandcamp*, *Facebook*) eskura daiteke diskoa (5€). Kamisetak (10€ / diskoa+kamiseta 13€) eta poltsak (7€) ere atera dituzte, *Olrait* estudioak egindako diseinuarekin. Diskoa kaleratu ostean, zuzenekoetara bueltatzeko irrikaz daude berriz ere. ■



Xabier Lete (bateria), **Unai Lete** (baxua eta ahotsak), **Julen Agirre** (ahots nagusia eta kitarra) eta **Mikel Aginagalde** (kitarra eta ahotsak) dira LETAGIN



Aker, Ona eta Ikatz tabernetan eta taldearen sare sozialetan eskura daiteke *Letagin* diskoa (5€)

ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LERIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77



RUPER ORDORIKA eta Mugalariak Santa Anan

OTSAILAK 16, IGANDEA, 19:00

Udaleko Kultura sailak antolatuta, Ruper Ordorikaren musikaz gozatzeko aukera izango dugu hilaren 16an, Santa Ana antzokian (19:00). Bere ohiko taldekideekin ariko da musikari oñatiarra: Arkaitz Miner (gitarra, biolina eta mandolina), Hasier Oleaga (bateria) eta Lutxo Neira (baxua). Duela bi hilabete 'Kafe Antzokian' diskoa atera zuen Ordorikak, sasoi ezberdinetako kantak zuzenean grabatuz, eta Oñatiko emanaldian ere bide beretik joko du. Txokolateixan eta leihatila digitalean daude salgai sarrerak 12 eurotan.

HELDUENTZAKO ANTZERKI TALDEA sortuko dute Irazan Gunean

Udazkeneko antzerki ikastaro saioek izandako harrera paregabearen ostean helduentzako antzerki taldea sortzea erabaki dute Irazan. Ikasturte honetarako proposamena da bost saio egitea, otsailetik ekainera, hilabete bat, hilerko azken larunbatetan. Goizeko 10:00etatik 14:30etara izango dira saioak, Eltziako Irazan Gunean. Lehenengoa **otsailaren 29an**.

BI BLOKE SAIO BAKOITZEAN

Saio bakoitza bi bloketan banatuko da. Lehenengo zatian **Inprobisazio Jokuak** egingo dira. Ariketa ezberdinen bidez kontzentrazioa, jolasteko gaitasuna, talde lana, irudimena, mimika eta abar landuko dira. Gure beldurrak eta zailtasunak non dauden eta hauei nola aurre egin ikasteko estrategiak landuko dira.

Bigarren zatian, **Argiak itzalita dantzan**, gorputzaren mugimendua esploratuko da. Gure gorputzak behar duena, sentitzen duena adierazten ikasiko dugu, argi gabeko mundu batean egongo bagina bezala, inork ikusten ez bagintu bezala mugitzen eta geure burua adierazten.

Amaia Castañeda izango da irakasleta eta saioak euskaraz izango dira. Prezioa: 100 € (bost saioak barne).

Izena emateko epea: otsailak 22 (irazan.eskola@gmail.com). Saio guztietarako egin behar da izen ematea.



Beñat Sarasola eta Jose Ignacio Carnero idazleak Oñatin izango dira, liburutegiko irakurle taldeen eskutik

Saioak irekiak izango dira herritar guztientzat

Udal liburutegiko Tertulixan irakurle taldeek punta-puntako bi idazleren bisita jasoko dute hil honetan. Gaztelerazko taldeek José Ignacio Carnero (Portugalete, 1986) abokatu eta idazle bizkaitarra gonbidatu dute **otsailaren 18an** (18:30) *Ama* (Caballo de Troya) izenburua duen bere lehen eleberriaz hitz egiteko. Bestalde, euskarazko taldean Beñat Sarasola (Donostia, 1984) idazle eta literatura kritikariaren bisita jasoko dute **otsailaren 26an** (18:30), iaz argitaratu zuen *Deklaratzekorik ez* (Susa) bere lehen nobelaz berba egiteko. Saio biak irekiak izango dira nahi duten herritar guztientzat.

IPUIN KONTAKETA (3-5 urtekoentzat)

Ostegun Kontalariak ekimenaren baitan, 3-5 urteko haurrentzako ipuin kontaketa saioa egongo da hileko azken ostegunetan (otsailak 27) Haur liburutegian, Ines Bengoaren eskutik. Otsailaren 20tik aurrera banatuko dira gonbidapenak.



Bertsolari gazteen txapeleketa jokatuko da otsailean Oñatin

Txinparta bertso eskolak antolatuta, DIZDAITTE Bertsolari Gazteen Sariaketa jokatu da Oñatin otsailean zehar. Bi kanporaketa saioa eta finala izango dira.

1.º KANPORAKETA

OTSAILAK 8, PAKO TABERNAN, 17:30.

Bertsolariak: Jokin Bergara, Eli Pagola, Peru Abarrategi, Maider Arregi, Joanes Illarregi eta Aitor Tatieggi.

2. KANPORAKETA

OTSAILAK 15, IKATZ TABERNAN, 17:30

Bertsolariak: Maite Sarasola, Ane Zuazubizkar, Txaber Altube, Oihana Arana, Maddi Ane Txoperena eta Urko Arregi.

Finala

OTSAILAK 29, ANTIXENA GAZTETXEAN, 19:00.

Kontzertua

Lukiek eta Nize rock talde bizkaitarren kontzertua. Sarrera, 5€ (soldatagabeek 3€) **Gaztetxean, 22:00**

**Pailazoak**

Txirri, Mirri eta Txiribiton pailaoen 'Zoro gaitezen' ikuskizuna **Zubikoan, 17:00 (2€)**

MUSIKA

OTSAILAK 9 / 12:45

OÑATIKO MUSIKA BANDA

Iñazio Ibarrondok zuzentzen duen musika bandaren kontzertua **Santa Anan**.

OTSAILAK 14 / 22:00

DUPLA + XATIRO

Musika urbanoa egiten duen bikote arabarra eta rapa egiten duen Unai Unda bilbotarra. Sarrera: 5€ (soldatagabeak 3€) **Gaztetxean**

OTSAILAK 16 / 19:00

RUPER ORDORIKA

Musikari oñatiarraren kontzertua. Sarrera: 12€. Aurrez salgai Txokolateixan eta leihatila digitalean. **Santa Anan**

OTSAILAK 21 / 21:00

UNIDAD ALAVESA + LIV WALLACE

Ataungo country-folk-rock taldea eta rock-punk akustikoa egiten duen Antzuolako bakarlaria **Ikatzen**

MARTXOAK 1 / 12:30

IKER MARTINEZ ETA ZALDI HERRENAK

Musikari oñatiarraren kontzertua **Gaztetxean**

MARTXOAK 1 / 19:30

AGENDA

OTSAILAK

21

SIMPLICISSIMUS KABARETA Bi mundu gerrateen artean bizi izan ziren hiru komikoren bizipenak oinarri dituen kabaret musikala, Patxo Telleriak sortua eta zuzendua **Santa Anan, 19:30 (10€)**

ANTZERKIA**DUKKHA**

Rock musika egiten duen Andoaingo hirukotea **Itturri tabernan**

HITZALDIAK

OTSAILAK 7 / 19:00

Erdi Aroko Ahaide Nagusiak. Gaiaren beste ikuspegi bat

Artixa kultur elkarteak antolatuta. Hizlaria: Jabier Elorza historialaria. **Kultur etxean**

OTSAILAK 10 / 18:15

Ze adinetan eman telefono mugikorra seme-alabei eta**zertarako?**

Guraso Eskolak antolatuta. Dinamizatzailea: Emoki taldea. Euskaraz Aurrez izena eman behar da: 943037700 / ainhua@onati.eus. **Euskaldun Berrria gelan**

OTSAILAK 11 / 19:00

1620 Nafarroa beheregaina komikia

Nabarraldekin antolatutako 'Gutaz' hitzaldi zikloaren baitan, Asisko Urmeneta ilustratzaile eta agitadore ezagunak Pirinioz gaindiko Nafarroaren bilakaera azalduko du. **Kultur etxean**

OTSAILAK 19 / 17:30

Poderes para futuras situaciones de incapacidad

'Etorkizuneko ezintasuneko egoeretarako bote-reak'. Hizlaria: Mercedes Hernaiz, Oñatiko notarioa. **Pake Lekun**.

IKASTAROAK

OTSAILAK 15 /

JOKO ESZENIKOA ETA INPROBISAZIOA

Patricia Urrutiaren eskutik. Ikastaro irekia (+16 urtekoentzat). 10:30-13:30 eta 15:00-18:00. Irazan Antzerki Gunean (Eltzia). Prezioa: 30€ (ikasle eta langabetuak 20€). Izena emateko: irazan.eskola@gmail.com **Eltzian**.

OTSAILAK 16 /

PHOTOSHOP TAILERRA

Photoshop bidez kartelak egiten ikasteko tailerra. **Antixena gaztetxean**.

JAIALDIK

OTSAILAK 20 / 18:30

OSTEGUN GIZENA

Otarreak eta dantzaldia. Mozorrotuta joateko deia egiten da. Txartelak otsailaren 13an (18:30-19:30) salduko dira Pake Lekun (bazkideek 1€, bazkide ez direnek 2€). **Pake Lekun**.

COINBROKER
OÑATI
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 9 - 20560 Oñati

943 089 006 | oinati@coinbroker.eus
www.coinbroker.eus

MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40

INAUTERIAK

OTSAILAK 20 / 15:00 OÑATIKO INAUTERI TXIKIA

Herriko hiru ikastetxeetako ikasleen kalejira. Herriko kaleetan.

OTSAILAK 22 / 11:30 OÑATIKO INAUTERIA

Kalez kale ibiliko da egun osoan Oñatiko Inauteria konpartsa. Amaiera Foru plazan, 20:00etan.

OTSAILAK 23 / 18:30 LUZAIDAKO INAUTERIA

Oñatz dantza taldearen eskutik, Aita Madina taldeko txistulariek eta Jose de Azpiazu musika eskolako akordeoi joleek lagunduta. Herriko kaleetan.

KANTU SAIOAK

OTSAILAK 29 / 12:30 HERRIXA KANTUAN

Jose de Azpiazu musika eskolak antolatutako kantu jira. Oñati Abesbatzako kideek ere parte hartuko dute. Foru plazan.

IRTEERAK

OTSAILAK 15 / MENDI IRTEERA

Gaztetxeko mendi taldeak antolatutako irteera.

BIDAIK

**OTSAILAK 25
TOLOSAKO INAUTERIAK**
Pake Lekuk antolatuta Tolosako inauterietara egun pasa.



Hileko gomendioa

Telesailek gizarte garaikidearen aisan eta kultur ohituretan pisu handia hartu dute. Interes horri erantzuteko, liburutegiak telesail onenak erosten ditu denen eskura egon daitezzen. Ez galdu aukera eta zatoz zurearen bila!

Telesailak



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ 943 78 21 16
Otsailak 12, 13, 21, 22 eta 23.
Martxoak 1 eta 2.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ 943 78 01 22
Otsailak 6, 14, 15, 16, 24 eta 25.
Martxoak 4 eta 5.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ 943 78 05 58
Otsailak 7, 8, 9, 17, 18, 26 eta 27.
Martxoak 6, 7 eta 8.

TULDAIN

Kale Barria 6 ☎ 943 78 11 28
Otsailak 10, 11, 19, 20, 28 eta 29.
Martxoak 1.

ZINEA



Zine-kluba: Osteguna (20:00)
Nagusia: Ostirala eta larunbata (22:30)
Igandea (19:30 eta 22:30)
Gaztetxoak: Larunbat eta Igandea (17:00)
Ikuslearen eguna: Astelehena (19:30)

Otsailak 6 - 10

ZINE KLUBA:
Una gran mujer (Beanpole)
NAGUSIAK:
Jojo Rabbit
GAZTETXOAK:
Spy Cat



Otsailak 20 -24

ZINE KLUBA:
Lo que arde
NAGUSIAK:
El escándalo (Bombshell)
GAZTETXOAK:
Volando juntos



Otsailak 13 - 17

ZINE KLUBA:
La verdad
NAGUSIAK:
1917
GAZTETXOAK:
Lur eta Amets



Ots. 27 - Martxoak 2

ZINE KLUBA:
Captain fantastic
NAGUSIAK:
Adú
GAZTETXOAK:
Operación panda



MERKATU TXIKIA

GARAJE ITXIA errentan ematen da San Lorentzoko 9 zenbakian. 657716385.

ONATIKO BIKOTE BAT gara eta errentan hartuko genuke etxe bat. Erostea aukera ere baloratzeko prest egongo ginateke. 653 710 456.

ONATIKO EMAKUMEA etxe partikularretan ordututa lana egiteko prest: garbiketasunak, erosketak, plantxa, adinekoei konpainia.... 688 603 052

ODOL ATERALDIA

OTSAILAK 21 / 17:00-19:00
Enpresagintza fakultatean, 17:00-19:00



Zure etxebizitzaren hobetzeko prest

Amaia igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Baserrien eta eraikinen zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE)
-Ilgogailu eta 0 kotara proiektuak -Fatxadak isolatzeko proiektuak
tel: 677 31 20 57 • email: amaiagartua@gmail.com • Oñati





(*) Itten: arrastua, pistia

>> JAKINGARRIXA

Etxe izenak (4)

Hainbat etxeren izenak, berriz, fameliaren deitura edo abizenetik ezaguketan dira. Herrixan badogu holako mordua, eta horreittako asko maiorazko etxiak dira, kale goixenetik hasita honako honeik, esaterako: *Agerre-Gomendio, Arzelus, Otadui-Jausoro, Araotz-Lazarraga, Garai, Antia, Madinabeitia, Larrastegi, (E)gaña, Zarate, Galarza, Lazarraga, Astorkitza, Hernani, Gereka, Bergantzo, Illarramendi, Zulueta-Uriarte, Gerra, Mendia, Altzaa-Lizaur,...*


Normalian abizen horreiri 'zeiñena' deklinabide kasua eranstean xate etxia aittaketako, halaxe: *Garaiñena, Antixena, Madinabeitiana, Lizaurrena, ...* Hona hemen, bada, euren abizenaz izentaiten diran herriko hiru etxeren erretratuak, lehenengo illarakuak aspaldikuak, eta, bigarrenekuak, oster, orainguak:



Altzaa-Lizaur etxia, Kale Zaharrian



Zarate etxia, San Anton kalia



Hernani etxia, Unibersidade etorbidian



Altzaa-Lizaur etxia



Zarate etxia



Hernani etxia


>> EUSKERAZ EGOGI:

Hoba zuan/zunan... Biharrago zuan/zunan...

Erderazko 'cuánto mejor habría sido' esateko, harridurazko espresioño honeik ebalten dittugu: **hoba zuan/zunan...!**, edo, **biharrago zuan/zunan...!** Sarritan entzuten diran ezker, merezi dau goguan hartzea eta balixaitia. Hona hemen adibide batzuk:

- **Hoba zuan** etorri ezpalitzuk! / **Hoba zunan** etorri ezpalitzun!
- **Biharrago zuan** mutilzahar geratu bahintza! / **Biharrago zunan** neskazahar geratu bahintza!
- **Hoba zuan** geldi-geldi egon bahintza! / **Hoba zunan** geldi-geldi egon bahintza!
- **Biharrago zuan** gaur uhetik jaiki ezpahintza! / **Biharrago zunan** gaur uhetik jaiki ezpahintza!
- **Hoba zuan** lagunakin urten bahian! / **Hoba zunan** lagunakin urten bahian!
- **Biharrago zuan** fraide sartu bahintza! / **Biharrago zunan** monja sartu bahintza!

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



Altzaatarren etxia XX. gizaldixaren hasieran

Beste batian be aittatu gittuan familia famau honen kontuak. **Altzaatarren jatorrixa Bizkaitik** etorren. Altzaa izeneko auzua Markiña ondoko Etxeberri herrixan dago. Oñatin XIX. mendiazen hasierara orduko behintzat agerketan xaku abizen horretakuak eta gure herriko beste liñaje ezagun batzuekin senidetuko dira: Santz edota Gomendiotarrekin, esate baterako. **Juan Antonio Altzaa** lizentziadua Oñatiko alkatia zan 1809xan, Napoleonen tropak penintsulia okupau eta hurrengo urtian; etxakon sasoi samurra egokitu halako kargu baterako. Honen bi seme, **Jose Frantzisko** eta **Joakin Julian**, asko nabarmendu ziran lehenengo karlistadaren inguruko garaixan; burruka latz harein ondoriox, Otxandixon hil zan bata eta Zaldibin bestia.

Jose Frantziskoren seme batek suerte hobia euki eben: **Juan Karlos Altzaa Larrañaga**, familia karlista batekua izan arren, nahikua ondo jirau zan gehixenetan liberalak aginttian egon ziran hamarkada gorabeheratsu hareittan. **Letradua** zan bere arbasuak letxe eta **alkate izatera ailelegau** zan bere aittajunaren moduan. Haren alkatetza-garaixan (1879-1883) jarri ziran Oñatiko kale eta plazetan oraindiok zutik jarraiketan dauen **itturri monumental ederrak**. Horregatik eta beste meritu batzuengatik, 1896xan hil zanian, **Altzaa** izena ezarri xakon Kale Zahar klasikuari, Zazpibidetatik Kurtzekoraiño.

Baiña **Juan Karlos Altzaa** beste obra inportante bat be burutu eben gerotxuago: Kale Zaharreko bere **jaiotetxiaren birmoldaketa** sakona. Hartarako paraje haretan egozen hiru etxe ereksi eragin zittuan: bata Sarrixaneko ortuko hormak ikuketan zittuan; beste bixak Santzeneko etxiarekin bat egitten euen; eta orube zabal horretan jaso zan 1886xan gaurko argazkixan Altzaatarren egoitza barri eta dotoria. Lan horrein **zuzendarixa Pedro Jose Astarbe** durangarra izan zan, Oñatiko beste hainbat obratan be zerikusixa euki ebena: itturri mumentaletan, kanposantuan, agustiñuetako elizan eta abarretan.

Etxe horretara fan zan bizittera **Damian Lizaur Lasa** arkitekto oñatiarra XX. gizaldiko lehenengo hamarkadetan, **Karmen Gomendio Larrañagarekin** ezkondu ondoren. Horregatik gure ume-denporan etxe hari **Arkitektuarena** esaten xakon eta hantxe ezagutu gittuan Lizaur-Gomendio andra-gizonak euren seme-alabekin. Urte eta gertaera asko pasau dira harrezkero; luzaruan erdi hutsik egon eta gero, palazio antzeko hori zihero **barriztau da barrutik** azkenaldi honetan, lehen egoitza bakarra zan lekuan hainbat bizitza moldauaz. Dana dala, kanpoko itxuria mantenidu egin da gutxi gorabehera.

Ehun urtetik gora eukiko dittuan argazki hau Iñaki Galdosen bittartez heldu xaku; eta argibide batzuk Xabier Zelaiari zor xangu. Milla esker bixoiri!

**KAIXO!
ETXE BILA NABIL. NAHIZ
ETA AZKEN KOLEKZIOKOA
EZ IZAN, TXINTXOA, ONA,
POLITA ETA ORAIN INOIZ
BAINO MERKEAGO NAIZ...
ADOPTATUKO NAUZU?**

**ALTZARI
ETXE GABEEN
KONTRAKO
KANPAINA**

70%

ARTEKO DESKONTUAREKIN

Martxoaren 1 arte!

Zigarrola kalea 1,
Arrasate (Gipuzkoa)
943 79 15 03

